

Herririk Herri | 3


+Dendak-ek ontzat eman du geltoki alboko merkatal-gunearen proiektua



Kultura | 11

Kale artistek Otxandion ospatuko dute lehenengo jaialdia, apirilaren 29an

San Prudentzio jaietako gehigarria



BERRIZ | 3

Aterik ateko zabor bilketa sistemari ekin diote Berrizen

Bizkaian hondakin organikoak aterik ate biltzeko lehenengo ekimena da Berrizkoa

58 familiak, eta jatetxe eta supermerkatu bana hasi dira parte hartzen udalaren ekimenean



Hondakin organikoak batzen, Berrizburuko konpostaje plantara eroateko. Kepa Aginako

BERBAZ | 8

"Bideragarria eta egingarria da Berrizko hiltegi berria"

Eguaztenean Erraldek Osasun sailagaz eduki duen batzarraren ostean, Durangoko hiltegia berriro zabaltzeko aukera egon ahal dela uste du Unzalu Salterainek, EHNEko kideak.



Durango | 2

Barne sailaren kontrako pintadak gaitzetsi dituzte hiru alderdik

Abadiño | 4

Herriko nagusiek euren bizipenak kontatu dizkiete eskola-umeei

Elorrio | 6

Udalaren webgunearen bidez, ehun tramite egin ahalko dira

Otxandio | 7

Udaberri Jaia antolatuko dute otxandiarrek astebururako

ALKIMAX

Alquilamos soluciones

Hostoentzako haize-makina | Motozerra | Zulozailua | Lorezainzarako traktorea | Gasolinazko motordun aitzurra

Eitua Industrigunea
71C
48240 BERRIZ (Bizkaia)
94 682 45 50
www.alkimax.com
alkimax@alkimax.net

DURANGO

Barne sailaren kontrako pintadak gaitzetsi dituzte

Cabacasen heriotza dela-eta egindako pintadak salatze testua adostu dute EAJk, PSE-EEK eta PPK

Ondare publikoa zein pribatua errespetatzeko". Hori eskatu diete pintaden egileei EAJk, PSE-EEK eta PPK, bozeramaile batzordean, pintadak gaitzesten dituen testu adostu baten bidez. Bilduk eta Aralarrek ez dute idatzia babestu, beste alderdiek ez dutelako Iñigo Cabacasen heriotza eragin zuten gertaerak aipatu testuan.

Apirilaren 13an agertu ziren Eusko Jaurlaritzaren Barne sailaren kontrako pintadak Durangoko hainbat hormatan. EAJk, PSE-EEK eta PPK nabarmendu dute pintadak garbitzeko "tratamendu gogorra" erabili beharko dela, ondarean kaltea eragingo duela eta horrek gastu handia ekarriko duela. Gastu hori, herritar guztiek ordaindu beharko dutela azpimarratu dute: "Gutxi batzuek egin dutena denok ordaintzen dugu".

Bildu eta Aralarren ustez, "oinarritzaile diren hainbat argudio" falta dira testuan. Bilduk ohar baten adierazi du koalizioaren iritzia. Iñigo Cabacasen heriotza gaitzesteko, eta lagunei eta familiari elkartzasuna adierazteko eskatu zuten bozeramaileen batzordean, baina testuan azken ez dituzte

koalizioaren argudio horiek gehitu. Udalak ikerketa eta ardurak exijitu beharko lituzke, Bilduren ustez. Ertzaintzari gomazko pilotak erabiltzeari uko egiteko deia ere egin gura izan du Bilduk, baina bere proposamenak ez dituzte kontuan hartu testua osatzerakoan.

Nabarmendu dute pintadak garbitzeko "tratamendu gogorra" erabili beharko dela

Bilduk eta Aralarrek ez dute testua onartu, besteek ez dituztelako Cabacasen heriotza eragin zuten gertaerak aipatu

Aralarrek ere prentsa oharrean azaldu duenez, "adierazpen bateratu sinatzeko borondatea" agertu zuten, baina EAJk, PSE-EEK eta PPK "ez dute nahi izan Iñigo Cabacas gaztearen heriotza sorrarazi zuten gertakariak aipatu". Aralarrentzat, "ezinbestekoa" da "pintadak gaitzesteko prentsa oharra plazaratzean aipatutako heriotza bortiza aipatzea". ■ A. U.

Esportazioen inguruko gakoak azalduko dizkiete Durangaldeko enpresariei

Internazionalizazioa izango da ardatz nagusia Lehiakortasun Poloak antolatutako jardunaldietan

"Enpresak kanpora irtetea, aukera bat baino gehiago, beharrezko bat da". Goiburua hori oinarri hartuta, Durangaldeko Lehiakortasun Poloak internazionalizazioari buruzko jardunaldiak antolatu ditu, apirilaren 23tik 27rako, Azterlanen. Ekimena doakoa da, eta Durangaldeko enpresa guztiei zuzenduta dago. Antolatzaileen helburua Durangaldeko enpresa egiturara heltzea da. "Gaur egun

kanpora irtetzen saiatzen ari diren enpresez gainera, beste askok ere aukerak izan ahal dituzte". Jardunaldietan lau arlo landuko dituzte: esportatzeko estrategiak, esportatzeko bost gakoak, merkatu potentzialak aztertze teknika eta esportatzailearen hamahiru akatsak.

Durangaldeko Enpresa elkar-teak, Amankomunazgoak eta Azterlanek bultzatu antolatu dituzte jardunaldiak. Azaldu dutenez, goiz eta arratsaldeko txandak izango dira, "enpresariaren asistentzia errazteko". Apirilaren 23an, 15:00etan batuko dira. Izena emateko 902 492 000 telefono zenbakira deitu behar da. ■ J.G.

"Kanpora irteten saiatzen direnez gainera, beste askok ere aukerak izan ditzakete"

+Dendak-ek ontzat eman du geltokiko merkatalgunea

4.400 metro koadroko merkataritza-gunea eta aparkalekua eraikiko dituzte

Mehatxu moduan beharrez, aukera legez ikusten du tren geltoki albo-ko merkatal-gunearen proiektua Durangoko +Dendak merkataritza eta ostalarien elkar-teak. Gelto-kiaren inguruan 4.400 metro koadroko merkatal-gunea eta hiru solairuko parkinga (396 leku) lizitatu dituzte. Supermerkatuak 1.800 metro koadro edukiko ditu. Beste 1.700 metro koadro, lokal-letarako: 16 eta 40 lokal artean. 1.000 metro koadro gehiago ostalaritza-erako. Eta aisialdirako eskaintza ere izango du. "Durangaldeko jendea autoa hartu eta beste leku batzuetara joaten da

horrelako aisialdi eta erosketarako eskaintza bila. Jendea bertan gelditzen bada, herriko merkataritza-erako ona izango da", Santiago Reyesek dioenez, +Dendak-eko arduradunak. Zehaztu duenez, galeria komertzialaren espazioa mugatua izango da. "ETSgaz hartu-emanetan egon gara proiektua herriko merkataritza-erako bat etortzeko".

EAJ eta PSEren eztabaida

Durangoko EAJk proiektua komunikabideen bitartez ezagutu izana kritikatu du. Ildo horretatik, Aitziber Irigoras alkateak komunikazio protokoloa martxan jar-

tzea eskatu dio PSE-EEri, udala eta merkataritza informatzeko.

Kritikari honela erantzun dio Pilar Rios zinegotzi sozialistak: "Ematen du alkatea ez dela enteratu proiektuak Durangoko merkataritza-erako onak izan dituela". Parte-hartzearen inguruko "lekuziorik" ezin diola inor eman leporatu dio PSE-EEkoak Irigoras. Gaineratu duenez, hainbat elkar-teak eta erakundeak alkateagaz batzartu gura izan dute eta ez dute erantzunik jaso: "Landakoko eskolarazo ekonomikoak ditu, gasa eta argia ordaintzeko arazoekin dabil eta ez du udalaren ekarpenik jaso oraindik". ■ J. G.



Urte amaierarako trena lur azpitik joatea aurreikusten du Arriola sailburuak.

Montevideoko obrak azaldu dizkie udalak auzokideei

Udalak Montevideo kaleko auzokide eta merkatariekin batzarrak egin zuten joan zen egunean uztailaren hasiko dituzten lanen berri emateko. 2011n Hirigintza batzordeak informazio protokoloa sortu zuen PSE-EEK proposatuta, eta hauxe izan da egin den lehen batzar informatiboa.

Obren bigarren fase honetan, Uribarriko bidegurutzetik Pedro Pablo Astarloa kalera arte asfalto ekologikoa ipiniko dute eta farolak aldatuko dituzte. Horren aurretik hoditeriatik arratoiak kenduko dituzte, "lehen fasean sortu ziren arazoak ekiditeko". Lanek hiru hileko epea edukiko dute amaitzeko. 434.000 euroko aurrekontua dute (Eusko Jaurlaritzak % 43 ordainduko du). ■ A.U.

MALLABIA

"Informazioa trukatu gura dugu, iritziak eta gomendioak jasotzeko"

Auzo batzarrak antolatu eta parte hartzeko deia egin du udalak, hobetu daitekeena ezagutzeko

Mallabiko Udalak herritarrekin duen hartu-eman estutu gura du, eta auzo batzarrak antolatu ditu auzoetako eta herriguneko bizilagunekin elkartzeko. "Informazioa trukatu gura dugu, herritarren iritziak eta gomendioak jasotzeko", azaldu du Mila Mondragon alkateak, eta parte hartzera deitu du, herrian hobetu daitezkeen gauzak ezagutzeko eta, posible den kasuetan, ekintza zehatzak martxan ipini ahal izateko.

Auzo batzarren bigarren erronda ko bilerak apirilaren 20an antolatuko dira, maiatzaren 3an, 19:00etan Artixe elkartearen bitartez. ■ J.G.

Gerea eta longa
Apirilaren 23an, 19:00etan
Gereako elkartearen

Goita
Apirilaren 26an, 19:00etan
San Juango elkartearen

Areitio, Herrigunea, Osma eta Zengotita
Maiatzaren 2an, 19:00etan
Kultur Etxean

Berano Txiki, Berano Nagusi eta Arandoño
Maiatzaren 3an, 19:00etan
Artixe elkartearen



BERRIZ

Hasi dira hondakin organikoa herrian aterik ate batzen

Astelehenean ekin zioten udalak sustatutako 'Berriziklatu' ekimenari, eta 300 litro batu zuten

Astelehenetan, eguaztenez eta barikueta egingo dute Berrizen hondakin organikoen bilketa, aterik ate. 58 familiak eta jatetxe eta supermerkatu banak parte hartzen dute egitasmoan, eta guztien atarrietatik pasatzen da Ibai Otadui udal

58 familiak eta jatetxe eta supermerkatu banak parte hartzen dute egitasmoan

behargina. Ibilbidea, goizeko 08:30etik 11:00etara betetzeko diseinatua dauka. Ekimeneko boluntarioek badakite euren etxetik zein ordutan pasako den. Hondakinak ibilgailu elektrikoan hustu, ontziak garbitu eta berriro atean uzten ditu udal beharginak. Denak batuta, Berrizburuko konpostaje-plantara eroaten ditu.

Han, organikoa nahastu egiten du 'materia marroia'-gaz (adarrak, inäustak...), eta konposta lortzeko lehenengo pausua bete.

Berriziklatu du izena udal egitasmoak. Astelehenean hasi ziren, eta Otadui azaldu du 300 litro batu zutela. Erabiltzaile guztiek ez dute seinalatutako egun guztietan aterako edukiontzia, baina lehenengo egunetan altua izan da kopurua: "Astelehenean eta eguaztenez lau bat edukiontzia baino ez ziren faltako".

Organikoa eta errefusa

Organikoz gainera, sailkatu ezin daitekeen materia ere batzen dute, teknikoki 'errefusa' deitzen diotena. Zigarrokinak, konpresak, bizaraitzurak edota zeramika dira, esaterako, multzo horretakoak. Boluntarioek ondo bereiztu behar dituzte organikoa eta errefusa, eta horretarako etxean dute iriz-



Berrizburuko plantan konpostaje-prozesua hasi dute asteon.

pide-orria. Organikoa zuzenean botatzen dute ontzira, eta errefusa poltsa batean ateratzen dute.

Julen Arzuaga Tokiko Gara-pen teknikariak azaldu duenez, kaleko edukiontzia berdea "ahaztea" gura dute. Horregatik arduratzen dira eurak hori ere batzeaz, gero birziklatu ez arren.

Sei hile barru boluntario kopurua handitzea espero dute arduradunek

Arzuagak dio urtebete pasatuta proiektuaren emaitzak aztertuko dituztela. Esperientzia proba bat izan arren, "etorkizuneko borondatea" ei dauka ekimenak. Asteon interesdun berriak agertu dira, eta sei hile barru boluntario kopurua handitzea espero dute. ■ M. Onaindia.



Rober Cano
Erizaina
34 urte

Proiektuaren parte izateko arrazoi asko daudela esan du Rober Canok. "Arrazoi nagusia, konpostajearen ideia garatzea eta hondakinak murriztea eta berrehabiltzea izan da". Azaldu duenez, "normalean zabor-tegiatera eta erraustegietara bideratzen den zabor kopuru handia naturara bueltatzea lortzen da". Horrez gainera, "erosotasuna" ei dakar: "Edukiontzia-gunera joan beharrean etxean lagatzeak erraztasuna ekartzen du". "Ez du esfortzurik eskatzen".

Hiru dira etxean, tartean ume txikia. Astelehenean eta eguaztenez ateratu zuten ontzia. "Gainera, bigarren ontzi bat eskatu dugu errefusa botatzeko, fardelek-eta lekua okupatzen dutelako". Berrizarrak parte-hartzera animatu ditu, "abantaila ekologikoa-gatik eta erosotasunagatik".



Rosa Petrel
Aurrejubilatua
54 urte

Birziklatzearen aldekoa izan da beti Rosa Petrel. Astelehenean ateratu zuten edukiontzia atarira. "Bi gara etxean, eta eguaztenez ez geneukan botatzeko nahikorik". Gaur berriro botatzeko intentzioa zuen. "Gauza berria da, eta ikusi beharko da zelan erabiltzen den, baina ideia ona iruditzen zait". Galdera erretorikoa bota du: "Zertarako botako dugu zakarretara, aprobetxatu daitekeen zerbait?".

Materiak banatzerakoan ez dela dudarik sortzen adierazi digu: "Ondo bereiztuta dago zerk balio duen eta zerk ez". Egitasmoaren beste arlo batzuk aipatuz, hondakinak botatzeko ibilgailua elektrikoak izatea eta lanpostuak sortzea ondo ikusten du. Energia berriztagarrien aldekoa dela adierazi du, eta bide hori etorkizuneko delako gaineratu du Petrelek.



Juan Ramon Turrion
Enpresaria
45 urte

Berrizen, DIA kateko supermerkatuaren jabea da Juan Ramon Turrion. "Enpresa moduan ere, zure medio guztiak ahalik eta gehien erabiltzea da helburua". Bestalde, bizi-ereduak eta espazioak arduratzen du: "Gero eta jende gehiago bizi da munduan, eta ezin da gara beti ibili hartu eta bota, bestela ez dugu izango nondik ateratu eta non bota".

Supermerkatuan herriko hondakin gehien sortzen denez, edukiontzia bi eta handiagoak dauzka. Udan, fruta urtsuak arinago usteltzen direnez, akaso beste bat beharko duela dio. Udala eta herritar-rak "bata bestearen beharrezanetara" egokitu behar direla adierazi du, "aurrera begira hobera egin gura bada". Zalantza utzi du airean: "50 familientzako balio du, baina herri osoarentzako?".

Gerra Zibileko bizipenak kontatuko dizkiete gazteei

Eguaztenez beteko dira 75 urte Intxortako fronteia jausi eta kolpistak herrira sartu zirenetik

Berriz 1936 Gogoratzen elkartearen eskutik, Gerra Zibila bizi izan zutenek esperientzia hori kontatuko diete herriko gazteei. Eguaztenez ipini dute hitzordua, 18:00etan, kultur etxe zaharrean. Justu 75 urte beteko diren egunetan,

"Urteurrena ezin dugu utzi pasatzen biktimak gogoratu barik eta hurreko historiaren transmisioa egin barik"

kolpistak Berrizen sartu eta Intxortako fronteia jausi zirenetik.

"Hondamendia eta samina". Hori eragin zuen herrian, elkartekoek gogorarazi gura dutenez. "Urteurrena ezin dugu utzi pasatzen frankismoaren biktimak gogoratu barik eta ondorengo belaunaldikoei gure hurreko historiaren transmisioa egin barik".

Ekitaldia, "testigantzak eman eta entzuteko" izango da. Bestalde, astelehenean, Gerediaga elkarte-kide Jon Irazabalek *Gerra Zibila Durangaldean 1936-1937* liburua aurkeztuko du, 19:00etan, Kultur Etxean. ■ M.O.

GARAI

Guggenheimerara bisita egingo dute nagusien elkartekoek

Bilboko Guggenheim museora irteera antolatu du Garaiko San Migel Nagusien Elkarteak. Apirilaren 30ean, 09:30ean irtengo dute herritik, eta autobusean joango dira Bilbora. Museoko erakusketak ikusi ostean, Enekuriko Mon-

tenegro jatetxean bazkalduko dute. Menua zein izango den ere zehaztu dute: sarrerakoak, hostopila eta txuleta izango ei dituzte, besteak beste. Arratsaldean, Getxo ingurutik osteratxo egiteko aukera edukiko dute bisitako parte-hartzaileek.

Salneurria

25 euroko prezioa ipini diote egun pasari. Apirilaren 26a baino lehen eman behar da izena Herriko Tabernan, elkarteko kideek azaldu dutenez. ■ M.O.

ABADIÑO

Gaztetako bizipenak kontatu dizkiete jubilatuek umeei

Zelaietako eskolan batu dira belaunaldien arteko harremanak indartzeko

Zahartze aktiboa eta belaunaldien arteko harremanak bultzatzeko ekimena burutu dute asteon Zelaietako eskolan. Auzoko jubilatuen elkartearen laguntzagaz hitzaldi-sorta antolatu dute. Eskola-umeei euren bizipenak kontatzera hurreratu zaizkie geletara dozena bat nagusi.

Bederatzi eta hamar urteko umeekin, adibidez, elkarrizketa eduki zuten martitzenean Javier Gorrotxategi eta Agustin Arteagazak (argazkian). Zelan lehen, Abadiñoko auzoetatik eskolara oinez joaten ziren, zeintzuk jolasetan jarduten zuten, eta hala-koak azaldu zieten adi-adi entzun zieten gaztetxoei.

Juan Luis Elorzak egindako argazkien bilduma izan dute eskolaren sarreran ikusgai

Argazki zaharren erakusketa ere antolatu dute, gainera. Juan Luis Elorzak egindako eta batutako argazkien bilduma izan dute eskolaren sarreran ikusgai.

Hiru urteko umeek, Edurne eta Itziar Astigarragaren bisita jaso dute gaur arratsaldean. Antzinako ipuinak eta kantak irakatsi dizkiete emakume bi horiek eskolako ume txikienei.

Eskolako gurasoei zuzenduriko saioa ere burutuko dute Txan-

Edurne eta Itziar Astigarragaren bisita jasoko dute gaur. Antzinako ipuinak eta kantak irakatsiko dizkiete

porta kultur etxean, hori ere gaur. Elorzak batutako argazkiak oinarri hartuta jardungo dute.

Sentsibilizaziorako martxa
Bestalde, Zelaietako trinketetik abiatuko den belaunaldien arteko martxa aurkeztu zuten, atzo, Errota kultur etxean. Adin guztietako herritarren hartu-emanak eta komunikazioa sustatzeko helburuz antolatu dute Abadiñoko San Trokaz eta San Prudentzio nagusien elkarteek. "Pertsona nagusiak gizarteko talde marginatu bezala barik parte aktibotzat hartzeko" antolatu dute domekako belaunaldien arteko martxa. ■ I.E.

ZALDIBAR

Xabier Zabarte omenduko dute domekako Castet Egunean

Hogeigarren urtez antolatu dute Castet Eguneko Santamañezarre-igoera, apirilaren 22rako. Martxoan hil zen Xabier Zabarte omenduko dute egun horretan. Castet elkarteak lehendakari izan zen Xabier Zabarte.

Era berean, gogoan hartuko dituzte "1937ko apirilaren 25ean Euskal Herriaren eta askatasunaren aldeko borrokan hil ziren berrogeiren bat gudari eta miliziano". Abellaneda batailoi-ko Iñaki Castet komandantea ere borroka hartan hil zen.

Castet elkarteak lehendakari izan zen Xabier Zabarte; martxoan hil zen

Castet, Ahaztuak eta inguruko herrietan memoria historikoa lantzen duten hainbat elkarte dira antolatzaileak. Udaletxetik abiatuko dira domekan, 10:00etan, Santamañezarretza, eta ikurriña ipiniko dute ton-torrean. Ekitaldia egingo dute gero, elkartearen egoitzan, 13:00etan, eta Goierriko kofradian bazkalduko dute. ■ I.E.



Gorrotxategi eta Arteagaren kontakizuna adi-adi entzuten.

Apirilaren **26**an

eskuratu CDa BERRIArekin zure kioskoan



+ 2€

Gernika (1937-2012)

MIKEL LABOA

Gernika (Lekeitio 4, 1972)

Bi bertsioen arteko elkarrizketa

- **Lehen bertsioa** 1974an grabatua. *Ahotsa eta gitarra:* Mikel Laboa
- **Azken bertsioa:** 1999an zuzenean grabatua. *Orkestrazioa:* Carlos Puig, Euskal Herriko Gazte Orkestra, Donostiako Orfeoia eta Mikel Laboa, J. Antonio Sanz Alfaroren zuzendaritzapean.

14 minutuko pieza berria



berria
elkar



INTXORTA 75 URTE

1937ko apirilaren 24an faxistek Elgeta hartu zuten.
Zibil eta milizianoak fusilatuz, neskatu zein emakumeak bortxatuz

APIRILAK 22 IGANDEA

12:00

INTXORTAKO ATEAN
OMENALDI-EKITALDIA

ELGETARA MARTXA

- ANDOAINGO BANDA
ERREPUBLIKARRAREKIN
- LORE ESKAINTZA SALBADORREN

14:30

BAZKARIA

Izena emateko:
turismoa@elgeta.net edo 943 768 022

APIRILEAN ZEHAR

BISITA GIDATUAK

Izena emateko:
turismoa@elgeta.net edo 943 768 022

APIRILAK 8 IGANDEA

APIRILAK 15 IGANDEA

Haur eta gurasoentzako bisitaldi berezia

APIRILAK 29 IGANDEA

Oroimena, egia, justizia, erreparazioa
eta herriz ez gertatzeko bermeak



ELGETAKO UDALA



INTXORTA 1937
KULTUR ELKARTEA

DURANGALDEA

Despiezerako instalazio bila dabilta harakin eta abeltzainak

“Kanpotik ekarri beharrean, bertoko ganaduagaz egin gura dugu lan”. Hori adierazi du Felix Iturbe harakinak, eta Bizkaian, abeltzain eta harakinei zerbitzua emango dien instalazio batek horretarako bidea eman ahal diela. Gauzak horrela, Erralderen inguruan batzen ziren hainbat harakin eta baserritar bertoko generoa lantzeko despiezerako instalazio baten bila hasi dira.

“Kanpotik ekarri beharrean bertoko ganaduagaz egin gura dugu lan”

Iturbek azaldu duenez, harategietan batzuetan generoaren falta izaten dute eta beste batzuetan soberan. Despiezerako plantan generoa denen artean kudeatu eta bertoko okelagaz egindako produktuak landu ahalko litzuzke; hanburgesak, adibidez.

Dagoeneko martxan dabilzan instalazio pribatu txikiak eta zarratuta daudenak ikusten hasi dira. Iturberen berbetan, “Durangaldean-edo, Bizkaiko erdigunean egotea komeni da”. ■ A.U.

Etkez etxeko laguntzarako irizpide berriak ipini dituzte

Amankomunazgoak iaz baino %8 gehiago bideratuko du laguntza mota horretara

Etkez etxeko laguntzarako ordu eta diru gehiago bideratuko du Amankomunazgoak. Irizpide berriak sortu dituzte, “sozialki ahulenek eta baliabide ekonomikorik ez duten eskualdeko pertsonak zerbitzu hau jaso ahal izateko”.

Horrela, pertsona nagusiek astean bi orduko laguntza eduki ahalko dute. Adibidez, osasunagatik larrialdi sozialean dauden pertsonak eta menpekotasunaren

balorazioa lortzeko zain daudenean, egunero ordu biko laguntza. Gizarte hezkuntzan esku hartzeko premia duten familiek, gehiezin hilean 22 orduko laguntza edukiko dute. Zaindu programa-ko zaintzaileentzako ere laguntza eskainiko dute, eta baita eguneko zentroko erabiltzaileentzat ere.

Etkez etxeko laguntzarako 1.350.000 euro bideratuko dituzte datozen bi urteetan. ■ A.U.

MAÑARIA

Xaboigintza eta lorezaintza ikastaro bana antolatu dute

Udalak eta EHNE sindikatuak ikastaro bi antolatu dituzte, elkarlanean, datozen asteetarako. Batek, xaboi eta krema naturalak egiten ikastekoa. Bestetik, lorezaintza ikastaroa. Lehenengoa apirilaren 25ean hasiko da, eta

maiatzaren 2an eta 9an izango du segida. Hamalau lagunek eman dute izena, momentuz, ikastaro horretan. Lorezaintza tailerra maiatzaren 16an hasiko da, eta hurrengo datak hauek izango dira: maiatzaren 23a, 30a eta ekainaren 6a. Orain arte, 11 lagunek agertu dute interesa.

Izena, liburutegian

Ikastaroetan izena emateko, liburutegira joan behar da. Orduetara eta informazio zehatzagoa ere, bertan eskatu ahal da. ■ M.O.

ELORRIO



Alkatea eta BiscayTIK-eko arduradunak, aurkezpenean.

Internetez ehun tramite eskainiko ditu udalak

BiscayTIK proiektuaren baitan ipiniko dute martxan zerbitzua; webgunea ere berriztu dute

Ekainetik aurrera, udaletxe-ko leihatilan ez ezik, www.elorrio.net webgunean ere egin ahal izango dituzte elorriarrek hainbat udal tramite. Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako BiscayTIK egitasmoari esker aktibatuko dute zerbitzua.

Hasieran, hamasei tramite garatzeko aukera emango dute; gehienak errolda agiriei eta ziur-

tagiriei lotuta. Urte bete pasatu aurretik ehun operazio inguru egongo dira eskuragarri.

Formazioa

Udal behargin guztiek jasoko dute formazio zehatza, tramiteok kudeatzen jakiteko. Herritarrei dagokienez, Urkiola Landa Garapenagaz hitzarmena lotu dute, ikastaroak emateko. ■ M.O.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Ate Irekien Jardunaldiak

Apirilak 25, 18:00
Maiatzak 26, 11:00

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

MGEP

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrial
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrial

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91



Durungaldean labor

Durango turisten kontsultak %5,6 jaitsi dira Aste Santuan

Durango Turismo Bulegoan 182 bisitari eduki dituzte, iaz baino 11 gutxiago. Gehienak (84) Espainiatik etorri dira. Hego Euskal Herriko jende asko ere etorri da (65 pertsona), Durangaldeko herrietako informazioa eskatzera. Mexiko eta AEBetatik ere etorri dira banaka batzuk. Durango Pasiñoaren, Urkiolako Parke Naturalaren eta Elorrioko Ondare Ibilbidearen inguruan galdetu dute, besteak beste.

Ume saharaiak etxean hartzeko kanpaina, abian

Udan haur saharaiak etxean hartzeko kanpaina martxan ipini dute Elorrioren eta Durangoen. Elorrioren apirilaren 30era arte dago zabalik izena emateko epea. Udaletxean eman daiteke, edota telefonoz: 656 714 551. Durango, Herria auzo elkarteak kudeatzen du ekimena. Eskabide orriak elkartearen tabernan daude. Informazio gehiago, telefonoz: 655 711 100.



Tabiran sanpedroak ospatuko dituzte

Durango Tabira auzoan San Pedro jaiak ospatuko dituzte zapatuan, 11:00etatik aurrera. Azoka ekologikoaz gainera, gaztetxoentzako aurpegi margolariak eta pailazoak egongo dira. Bertan bazkaldu gura duenarentzat taloekin egindako ostarakoak ere salduko dituzte.

OTXANDIO

Limitaduaren jabetza ipiniko dute bihar jokoan, Udaberri Jaian

Otxandioren eta Aramaioren arteko olinpiada herrikoiek elkartasuna bultzatzea dute helburu

Otxandio eta Aramaioren artean aspaldikoa da limitaduaren gaineko eztabaida. Otxandiarrak euren dela diote eta aramaiorrek kontrako defendatzen dute. Baina zertarako ika-mikan jardun, jabetza joko batzuen bidez erabaki daitezkeen? Zapatuan, 13:00etan, Udaberri Jaian barruan, hainbat joko herrikoiz osatutako olinpiadak egingo dituzte. Irabazten duen herriak egurrezko oilarra jasoko du, eta baita limitadua-ren jabetza ere, modu sinbolikoan.

Urteetako eztabaida aitzakia moduan hartuta, elkartasuna sustatzea dute helburu: "Hartueman ona dugu Aramaiogaz. Lehia

sanoan arituko gara, jaigiroan", adierazi du Alaitz Ajuria otxandiarrak.

Olinpiaden garaipena oilar batek irudikatzea ez da kasualitatea: kondairak dio, behin herri biek tratu bat egin zutela auzia ebazteko; egunsentian, oilarren lehenengo kantuagaz, herri bakoitzetik eztabaida eremurantz abiatuko ziren eta herri bietako ordezkariak bat egiten zuten tokian ezarriko zituzten mugak. Kondairak dioenez, aramaiorrek oilarrak xaxatu zituzten lehenago kantatzeko, eta otxandiarrak abiatu zirenerako, erreka alboan aurkitu zituzten aramaiorrek, Otxandion bertan.



15:00etan bazkari herrikoia egingo dute plazan; euria bada, Pasealekuan.

Biharko jai egunean, oster, goizean Otxandiotik abiatu eta Orisol mendian elkartuko dira aramaiotarrek. Gero, Otxandioko plazara jaitsi eta orduan egingo dituzte jokoak. 15:00etan bazkari herrikoian batuko dira. Bazkariarako txartelak Fondan daude

salgai: 8 euro umeentzako eta 12 euro nagusientzako.

Iluntzean musika izango da nagusi. Gozo Gozo taldeak erromeria eskainiko du, 19:00etan; ondoren, kontzertua eskainiko dute Boot Boys, Kruders, G.R.T. eta Eskean taldeek. ■ J.D.

Iluntzean kontzertua eskainiko dute Boot Boys, Kruders, G.R.T. eta Materia Gris taldeek

IZURTZA

Jaietarako kartel lehiaketa abiatu dute, maiatzaren 31ra bitartean

Jaiak iragartzeko kartel lehiaketa hasi du Udalak. Kartel guztiek honakoa idatzita izan behar dute derrigor: *Izurtzako Jaiak 2012*. Era berean, jaietako testu edo ezaugarriren bat ere izan beharko dute. Maiatzaren 31era artekoa izango da lanak udaletxean aurkezteko epea. Irailaren hasieran ospatuko dituzte jaiak.

Jaietako testu edo ezaugarriren bat izan beharko dute

Epaimahaia Kultura Batzordeko kideekin eratu dute eta kartel irabazleak 250 euroko saria jasoko du. Osteen, antolatzaileek egoki ikusten badute, erakusketa antolatuko dute lehiaketara aurkezten diren kartelekin.

Formatuari dagokionez, kartelak CD, pendrive nahiz Din A3an aurkeztu ahalko dira. ■ J.D.

ATXONDO

Axperako bidea konponduko dute gaur, auzolanean

Udalan hainbat kexa jaso dituzte azkenaldian, Axperako errepidearen egoera kaskarra dela-eta. Arazo horri auzolanaren bidez eman gura diote irtenbidea, eta gaurko ipini dute hitzordua Apatako plazan, 15:00etan. Asmoa errepideko zuloak asfaltoz estal-

Euskal Jaia ospatuko dute domekan, dantzariekin

Andasto dantza taldeak Euskal Jaia antolatu du. Domekan, 12:00etan, kalejira egingo dute herritik zehar. Arratsaldean, 17:00ak inguruan, Ziarreta auzoan batuko dira alardarako. Besteak beste, Durango, Abadiño, Elorrio, Otxandio eta Mañariko dantzariak

tzea da eta, jende nahikoa batzen bada, bide bazterrak sasiak kentzeko makinagaz garbitzea eta ubideak konpontzea ere bai. Errepideko zuloak konpontzeko, asfaltoz betetako atoa eta eskuzko arrabola ipiniko ditu udalak. Lehenengo errepidearen alde bateko lanak egingo dituzte eta ondoren besteak.

Berez, errepide hau Bizkaiako Aldundiaren eskumenekoa zen, baina orain dela urte batzuetatik hona, udalarena da eskuduntza, eta udalari dagokio mantentzen lanak egitea. ■ J.D.

batuko dira. Atxondokoa ez den dantzariaren bat etxean hartu gura duenak bazkariarako, barikuan du hori jakinarazteko aukera. Apatako pilotalekuan egongo dira dantza taldekoak, 19:30etik 20:30era.

'Herrira', zuzenketa
Anbotoren aurreko zenbakian, *Herrira* ekimena joan zen barikuan aurkeztuko zutela argitaratu genuen, oker. Ekimenaren aurkezpenean gaur izango da, 20:30ean, liburutegian. Barkamenak antolatzaileei eta irakurleei. ■ J.D.

IURRETA

150 gonbidatu batuko ditu, bihar, antzinako eztegu antzezpenak

2002an ospatu zuten lehenengoz; harrezkero bost urterik behin egiten dute, 1902an girotuta

Valentina eta Antonio (Amaia Etxebarria eta Bidart Zugaza-Artaza) ezkonduko dira, bihar, Oromiñon. Eurokin ospatuko dute eguna 150 gonbidatuk, bost urterik behin egiten duten ekimenean (2002an izan zen lehenengoa). 1902. urte inguruko eztegua ekarriko dute gogora.

13:00ak inguruan irakurriko du notarioak ezkontza-kontratua

Baztarreko baserrian prest izango dute gurdia, eta kalejiran abiatuko dira, 12:00etan: ezkonkideak, guraso eta aitita-amamak, osaba amerikanoak eta notarioak joango dira. Atzetik, gainerako

familia, herritarrak, dantzariak eta trikitilariak. Erdibidean, gonbitea antzetzuko dute. Ardo gozoa eta pastak eskaini, eta San Marko ermitara joango dira. Han egingo dute eztegua. 13:00ak inguruan irakurriko du notarioak ezkontza-kontratua, gurasoek baietz esan ostean, ezkonkide eta testiguen sinatu beharrekoa. Dantza ekitaldiagaz amaituko dute antzezpena.

Trikitilariak berotuko dute txokoa izango duten bazkari-aurrekoa. Bazkalostekoak Oxabi arduratuko da. Auzoko jaien aurrekari izango da antzinako eztegua. Donien Atxa igoko dute martitzenean eta, apirilaren 25ean, San Marko eguna ospatuko dute. Asteburuan egingo dituzte ekintza gehienak. ■ A.B.

BERBAZ>



Unzalu Salterain•

- Abadiñarra
- EHNE sindikatuko arduraduna

“Bi urteko epean Berrizko hiltegi berria zabalik izatea espero dugu”

Jaurlaritzagaz batzartuta, jarrera “itxia” nabaritu dutela dio Salterainek, baina “ate bat zabalik gelditu da”

Erralderen etorkizuna zalantzan jartzen dutenen aurrean, EHNE sindikatuko Unzalu Salterainek hiltegiaren filosofia eta proiektua defendatu ditu.

Eguaztenean Jaurlaritzaren Osasun sailagaz batzartu zineten. Zein erantzun jaso duzue?

Urtarrilaren 18an izan genuen batzarretik hona jarrera itxiagoa ikusi dugu. Gogorra izan zen ikustea sektoreari begira sentibilitate gutxi erakutsi dutela. Egituran gabezia dagoela azaldu digute; beste gabezia guztiak konponduta daudela. Guk metodologia aldaketa proposatu dugu, baina horrekin ez dela nahikoa diote. Hala ere, bilerraren ondorio nagusia izan da irtenbide bat topatu behar dela. Ate bat irekita gelditu da.

Aukera hori zertan datza?

Alde bietako konpromisoa hartu genuen, eurek planteatzen duten gabezia konpondu ahal den aztertzeke, hiltegiako espazioak beste era batera probe-

txatuz. Proposamen bat aurkeztuko dugu ahalik eta azkarren.

Berrizko hiltegi berriazelan doa?

Proiektu hori egingo den lurretan zabortege bat ixten dabilta eta hori bi hilabeteetan amaituta egongo da. Horrek esan gura du ondoren lur mugimenduekin hasi ahalko garela. Bi urteko epean Berrizko hiltegi berria zabalik izatea espero dugu.

Proiektu berria aurrera irtetea gatz ikusten dutenei zer esango zenieke?

Batzuk hainbeste bider esaten dabilta ez dagoela ezer, baina proiektua bera, lizentzia guztiak, terrenoa eta proiektua adjudikatuta ditugu. Hamabost udalerrik konpromiso ekonomikoa hartu dute, Nekazaritza sailaren %40a ere badaukagu. Udal gehiago inplikatu gura ditugu udal horientzako ez dadin hainbeste karga izan. Guretzako garrantzitsuena, lehenengo harria ipintzea baino, azkenengo arloa jartzea da. Herri honetan obra asko hasten dira, hasi egin behar direlako, baina gero ez dira amaitzen. Arlo finantzieroa

ondo sendotzea erantzukizunez jokatzeko da.

Komunikabideen jarrera kritikatu duzu.

Erralderekin komunikabideetan gailendu dena da informazioa partzialki hartzea, datu negatiboak azpimarratu, dena nahastu, turmixean sartu eta bentiladore batekin zabaltzea.

Auzokideek bideragarritasun plana eskatu zioten Erralderi.

Auzokideekin bizikidetzaren harremana mantendu behar dugula badakigu, eta beraiekin batzartu behar gara. Ahalik eta eragozpen gutxien eragin gura dugu. Bestalde, finantziario planak eskatu dituzte. Erraldek 12 milioi euroko kreditua izan du proiektu berria aurrera eramateko. Hiru banketxe hori emateko prest badaude, suposatzen da finantziario plan gintza badagoela. Ez dugu auzokideekin eta udalagaz komunikabideen bidez eztabaidatu gura.

Zergatik da hain garrantzitsua Erralde berriro irekitzea?

Hiltegiak berak Durangori eta auzo horri ekarri diona ezin dai-

“Egitura gabezia konpontzeko espazioak beste modu batean antolatu ahal dira”

“Erraldek Durangoko merkataritzari eta auzo horri ekarpen handia egin dio”

teke mugatu azkenengo urte hauetako eragozpenetara. Durangoko ekonomia eta komertzio txikiari ekarpen handia egin dio. Durangok baserriar gutxi eduki arren, harategi ugari ditu. Hiltegi berria sortu arteko epe honetan sektorea hiltegi barik ezin dezakegula utzi uste dugu.

Zelan ikusten duzu Erralderen etorkizuna?

Proiektua bideragarria eta egingarria delakoan gaude. Sektoreak, merkataritza txikiak eta herri honek behar duen garapenaren aldetik beharrezkoa da. Zerbitzu publiko moduan planteatzen dugun eredu kopuru handiekin dabilta interes pribatuentzako kaltegarria da, eta horregatik izan du Erraldek sinpatia gutxi. Okelaren negozioa kontsumo gaitasunetik begiratu behar da. Guk elikaduraren subiranotasuna aldarrikatzen dugu. Begira Lekeition zer gertatu den. Urteotan antoxa gutxi zegoela-eta, batu barik egon da. Arrantzara joan eta antxoaren prezioa botata egon den bitartean, eskoletan panga jaten dabilta. Zer pentsatua ematen du, ezta? ■ J. Guenetxea



aisia LEKEITIO
H ★ ★ ★

Aisia Lekeitio Hotela

Santa Elena etorb, z/g

48280 Lekeitio

Tel.: 94 684 26 55

Fax: 94 624 35 00

lekeitio@aisiahoteles.com

lekeitiorestaurant@aisiahoteles.com

www.aisiahoteles.com



HAINBAT OPARI ZURE ESKU, EZTEI BANKETEA LEKEITIOKO AISIAN EGINEZ GERO, 2012KO URRITIK 2013KO OTSAILERA:

- Dj saioa bi orduz
- Eztei Gaurako Suite-a + "Jarri Eder" pakete termala
- Autobus bat, 55 lagunekoa, gonbidatuak garraiatzeko
- 2. afaria edo txokolate erretilukada
- Cava, brindiserako
- Lore apainketa pertsonalizatua, mahaietarako
- Menu pertsonalizatuak
- Argazki erreportajerako prezio bereziak + ezkontza gonbidapenak debalde



Gutxienez 50 pertsonako ezkontzak. Beste kopuru batzuetarako, baldintzak galdetu.



BI BONO GASTRONOMIKO ZOZKETAN AISIA LEKEITIO HOTELEAN

Zein herritan jarri dute martxan hondakinak atez ate jasotzeko sistema?

MARTXOKO IRABAZLEAK: Lourdes Royuela eta Amaia Elorriaga. **ZORIONAK!**

BIDALI ZURE ERANTZUNA:

astekaria@anboto.org-ra edo Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta helbidera



@anbotokultura

KULTURA[>]

ARTEKALE JAIALDIA > OTXANDION



Otxandion egingo dute kale artisten lehenengo topaketa

Durungaldea aukeratu dute I. Artekale Eguna egiteko. Euskal Herriko kale-artistak batuko dira apirilaren 29an Otxandioko kale eta kantoietan, eta egitarau zabala aurkeztu dute, hasi goizetik eta ia iluntzeraino

Jai giroan eta lagun artean elkartzeko antolatuta dute, aurten lehenengo biderrez, Artekale Eguna. Euskal Herriko 35 konpainiatako artistak Otxandion batuko dira euren lana herri-terrei erakusteko.

Datorren domekan, apirilaren 29an, "jai erraldoia" egongo da herriko kaleetan zehar, goizean goiz hasi eta eguna ilundu aurretik: animazioa, zirku tailerra, erakusketak eta mota guztietako hamahiru ikuskizun.

Animazioa, zirku tailerra, hamahiru ikuskizun eta erakusketak egongo dira

Kale-arten profesionalen Artekale elkarteak eta Otxandio-ko Udalak elkarrekin prestatu dute egitaraua. Bezperan, apirilaren 28an, afari berezia egingo dute elkarteko kideek, eta gonbidapena luzatu dute, gura duten otxandiar guztiak mahaiaren bueltan batzeko beraiekin batera.

Afarira doazenek, Jon Zabalen *Pensamientos encontrados* lana ikusteko aukera izango dute, gaztetxean. Lan horretan, "ilusionismo psikologikoa" jorratzen dela adierazi dute antolatzaileek.

Aterpean eskainiko duten ikuskizun bakarra bezperakoa izango da

Aterpean eskainiko duten ikuskizun bakarra izango da, kalean izango direlako hurrengo eguneko ikuskizun guztiak, mota guztietakoak. 10:00etan hasi eta txotxongiloak, clown-a, zirkua, kalejirak eta antzerkia, eta ikuskizun batzuk, modalitate bat baino gehiago uztartzen dituzten lanak izango dira.

Berezitasunen artean, Sebastopoleko Titiriteroak taldeak, jaialdirako bereziki sortu du *Otxandio-ko maskarada*. Andikona plazan izango da, 17:45etan hasita.

APIRILAK 29

10:00etan, En La Lona-ren *Momentu Ridiccoli*, Andikona plazan

11:00etan, Trapu Zaharraren kalejira eta txupinazoa, Andikona plazatik Plaza Nagusira

11:20etan, Gaitzerdi Teatroren *Armenio*, Artekale Plaza Nagusira

11:50ean, Zirkalaren *A ze para!*, Plaza Nagusitik

12:30ean, Turukutupá taldearen *Reciclonk!*, Udaletxeko aterpean

12:30ean, Salitre Teatro-ren *On egin mon amour*, Plaza Nagusitik Andikona plazara

13:30ean, Hortzuga Teatra taldearen *Libertia*, Plaza Nagusian

13:45ean, Latirili Teatroren *Sim & Sam*, tabernaz taberna, Artekaletik

13:45ean, Oihulari Klown taldearen *Pronóstico reservado*, tabernaz taberna, Artekaletik

16:00etan, Debote Enbote taldearen *Argotu*, Artekaletik Plaza Nagusira

17:00etan, Toni La Sal taldearen *Teleipuina*, Andikona plazan

17:45ean, Sebastopoleko Tiriteroak taldearen *Otxandio-ko Maskarada*, Andikona plazatik Plaza Nagusira

18:45ean, Trapu Zaharra taldearen *La avería*, Plaza Nagusitik Artekalera eta Andikona plazara

Bestalde, Gaitzerdi Teatro taldeak, "Otxandioko eguneroko paisaje urbanoa eraldatuko du" *Armenio* ikuskizunagaz, antolatzaileek adierazi dutenez.

Komediak tarte zabala edukiko du. Esaterako, publikoari barreak eragiten ahaleginduko da Trapu Zaharra konpainia, *Avería* kale antzerkiagaz. Baita Teatro Salitre taldea ere *On egin mon amour* obragaz.

Umeentzako bereziki

Umeei bereziki zuzendutako lanak ere izango dira Artekale Egunean. Adibidez, *Teleipuina*, txotxongiloak eta antzerkia uztartzen dituen lana, Toni La Sal taldearena; edota *Momentu Ridiccoli*, En La Lona taldearena, eguneko lehen ikuskizuna, hain zuzen ere, hainbat teknika batzen dituena: clown-a, txotxongiloak eta zirkuko teknikak.

Bestalde, kaleko artisten lana hobeto ezagutarazteko, konpainien eta jaialdien materialak ipiniko dituzte ikusgai erakusgela eta kale kantoietan. ■ I.E.



"Kaleko arteen zirkuitua sortzea dugu helburu"

Artekale elkartearen ordezkaria da Pedro Ormazabal arratiarra. Elkarte horren helburuez egin du berba

dun dugu. Asmoa, hemendik aurrera ere Artekale Egun honegaz jarraitzea da, eta hurrengoan beste herri batean egitea da.

Noiz eta zer helburuz sortu zenuten Artekale elkarteak?

Euskal Herriko kaleko arte eszenikoa bultzatzeko asmoagaz, 2006an sortu genuen elkarteak. Jaialdiak, antzerki konpainiak, eta banatzaileak elkartu ginen sektorea bultzatzeko.

Zeintzuek osatzen duzue gaur egun Artekale elkarteak?

Gaur egun, 35 konpainia, zazpi azoka edo jaialdi, eta hainbat banatzailek osatzen dugu elkarteak. Urtero, Euskal Herriko kon-

painia guztiei eskaintzen diegu elkarteko kide bihurtzea.

Zertan egin duzue orain arte indar gehien?

Formakuntzara bideraturiko jardunaldi bi antolatzen ditugu, esaterako, urtero. Gainera, Aldundiagaz eta Jaurilaritzagaz hartu-emana dugu sektorearentzako diru-laguntzak sustatu eta kudeatzeko.

Aurrerantzean zer helburu?

Euskal Herriko kale antzerkiaren zirkuitua sortzea da epe laburreko gure helburu nagusia. Krisialdi sasoi honetan, bertoko konpainiei laguntzeko modu ona dela uste dugu.

Zelan bururatu zitzaizuen Artekale Eguna antolatzea? Durangon egin genuen elkartearen batzar orokor batean erabaki genuen jendeari gure lana erakusteko jaialdi bat antolatuko genuela.

Zergatik Otxandion?

Herriko alde zaharra honelako egun bat antolatzeko oso aproposa iruditu zitzaigun. Otxandioko Udalagaz elkarlanean jar-

MUSIKA>

Inprobisazio saioan batuko dira Durangaldeko hainbat musikari

Elorrioko Ateneo Jazz jaialdian, pieza klasikoak hartuko dituzte inprobisaziorako oinarritzat



Durangaldeko eta inguruko herrietako musikariak elkarregaz inprobisatzen ipiniko ditu Elorrioko Ateneo Jazz jaialdiak.

Horrelako emanaldi baterako areto horrek eskaintzen dituen baldintza ezin hobek aprobetxatuz, apirilaren 26rako antolatu dute emanaldia, Ateneoan.

Askotariko musika-tresna jotzaileek hartuko dute parte *jam session* horretan. Bateria, baxu, kontrabaxu, gitara, saxo, piano eta tronboi doinuak izango dira, besteak beste, musika emanaldi horretan entzungai.

Jazz musikaren klasikoaren estandarrak oinarri hartuta joko dute musikariek. Miles Davis edo Duke Ellington jazzlarien doinue-tatik abiatuta, berriak eta ustekabeak sortuko dituzte Ateneoan.

Bigarren aldia da aurten *jam session* bat egingo dutena Elorrioko. Musikariak zein entzuleak

ere oso gustora egon ziren lehenengo emanaldian, eta handik bi hilabetera antolatu duten bigarren saio hau. Lehenengoaren arrakastak bultzatu ditu datorren eguenekoa prestatzera; ostera ere inprobisazioa antolatzera.

Miles Davis edo Duke Ellington-en doinue-tatik, berriak sortuko dituzte

Bigarren aldia da aurten 'jam session'-a antolatu dutena Elorrioko

Hamabost musikari inguruk jardun zuten urte hasierako emanaldi hartan, Durango, Elorrioko, Bergara eta Arrasatekoak.

Soiltasunetik

Baliabide tekniko oso murriztekin, modu oso soilean jardungo dute apirilaren 26an. Hain zuzen, soiltasun horri eta entzuleen jarrerari esker, otsaileko emanaldian giro oso berezia sortu zela diote antolatzaileek: "Isiltasun eta errespetu handia nabaritu genuen", adierazi du *jam* saioan musikari bezala ere parte hartzen duen antolatzaileak, Karlos Gomezek.

Aurrerantzean ere jarraitu gura dute *jam session*-ak antolatzeko Elorrioko Ateneoan. Zein maiztasunegaz egingo duten ez dakitela adierazi dute antolatzaileek, baina inprobisazioaz gozatzeko jarraitzeko asmoa dutela ziurtatu dute. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA

Arantza Arrazola
Maider Larrañaga
San Agustin
kulturgunea



OPORRETAN-EDO

Halaxe pasatu dituzte apirilean gorri azaltzen diren 4 egunak Durangora hurbildu diren ia 50 lagunek. Zertara etorri dira, baina? Ba, clown eskolak hartzera. Honekin, bost bat urte izango dira San Agustinek halako ikastaroak antolatzen dituela.

Aurtengoan, egoera komikoak sortzeko gorputza zelan erabili irakatsi dau Pablo Ibarluzea laudiarra, eta Pep Vila kataluniarra, berriz, desikastera gonbidatu gaitu, clownak izateko gehiegi dakigulakoan, ergeltasunerako bidea jorratu du.

Bertokoez gain, Bartzelona, Madril, Burgos edota Zaragozatik etorritakoek osatu dituzte ikastaroak—eskaera ikusita, bina txanda antolatu direlako—, ofizio profesionalak, afizionatuak eta ondo pasatzearen zale direnekin anabasa bitxia sortuz.

Iluntzeetan, Anboto tabernako bokataren ostean, beti egon da norbait bere lana erakusteko prest, eta halaxe gozatu dugu oraindik egosten dabilen lanekin; gatza eta piperra botatzen ere utzi digute, sortzen ari denak gustura entzuten duelako lehen ikusleari eragindako zirrara. Eta halaxe, ia konturatu barik pasatu da asteburu luzea, edo, oporraldi laburra.

Politena, zalantza barik, antzerkiaren bueltan batzen den jendarte bitxi eta anitza.

Gehien harrotzen gaituena?... Geurean izan dela!

LITERATURA>

Genero ikuspegitik landuko dute irakurketa taldean literatura, Andragunean

Urretabizkaiaren '3 Mariak' eleberriaz hasiko dira

Emakumezkoek idatzirik literatura eta genero ikuspegia lantzen duen literatura. Lehengai hori hartu eta lantzeko, Irakurketa Taldea eratuko dute Durangoko Andragunean.

Parte-hartzaileek eurek hautaturiko liburuak irakurri, gogoe-ta egin eta taldekideekin iritziak konpartitzea da Andragunetik luzatzen duten proposamena.

Apirilaren 25era arte, Andragunean eman ahalko da izena

Udalaren Berdintasun batzordeak antolatu duen irakurketa taldean, lehenengo saiorako, Arantza Urretabizkaiaren 3 *Mariak* eleberria aukeratu dute.

Estereotipoak hausten

"Emakumeen zahartze prozesuari buruzko estereotipoak hausten dituelako" aukeratu dute antolatzaileek liburu hori.

Maiatzean eleberria irakurri, eta ekainaren 1ean eleberriari buruzko iritzien elkartrukea egitea da proposamena.

Apirilaren 25era arte eman ahalko dute izena Andragunearen saioetan parte hartzeko interesa dutenek. ■ I.E.

BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda
Grupo CATALANA OCCIDENTE
Jose Antonio Agirre Lehend. 8 • 48200 Durango
Tel.: 94 620 27 10 • Faxa: 94 681 65 77

GAER DESINFEKZIOAK
Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:
LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITZAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...
Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

ALBERDI
HARATEGIA HARATEGIA
DURANGO

Bertako okela
Aurretiaz prestatutako janariak
Askatasun etorbidea, 1
Tf: 94 681 76 58
48200 DURANGO

ODOLOSTETAN GAILEN - 2009
Eminencia en la elaboración de Morcillas
Alberdi Harategia

ALBERDI
prekozinatua

San Prudentzio

Traña - Matiena

Jaiak

Abadiño

2012

anboto



www.bagoaz.com

Trañabarren 11, behea • 48220 Matiena (Abadiño) • Tel.: 94 465 75 77 • Mug.: 639 346 506 • info@bagoaz.com

Traña - Matienako jai EGITARAUA

Apirilak 27, barikua, Donien Atxa Eguna

- 19:00etan, koadrila guztiak batuko dira Trañako zubian.
- 20:00etan, Donien Atxa jaso. Bizkarra fanfarreak alaituko du giroa. Iluntze dantza taldearen saioa. Urteko lagun ospetsuena saritzeko ekitaldia.

Apirilak 28, zapatua San Prudentzio Eguna (umeen eguna)

- 09:30etan, aretoko futbol partidak Traña-Matienako IGEk antolatuta, eskolan.
- 10:00etan, Txanbolin taldeko txistularien kalejira.
- 10:30etan, umeentzako quad-ak Traña plazan. Antolatzailea: Abadiñoako Endu-Quad Abadiñoako motor Club.
- 11:00etan, meza nagusia.
- 13:00etan, umeentzako ikuskizuna, Malas compañías zirko taldearekin, Traña plazan (euria bada frontoian).
- 16:00etan, mus txapelketa eskolako aterpean. Antolatzailea: Arrano elkarte.
- 16:00etan, aretoko futbol partidak Traña-Matienako IGEk antolatuta, eskolan.
- 18:00etan, Disko Pottoka, umeentzako jaialdia, Trañabarren etorbidean.
- 22:15etan, su artifizialak (eguraldi txarra badago, bertan behera).
- 23:00etan, rock jaialdia, Traña plazan:
 - Orion Child
 - Leihotikan
 - Seiskafes.
- 23:00etan, jaialdia Trañabarren etorbidean: Onda Futura.

Apirilak 29, domeka (nagusien eguna)

- 12:00etan, kontzertua elizan, Jaizale Durangaldeko txistularien elkarteak eta Done Zezili abesbatzak eskainita.
- 13:00etan, perretxiko pintxoak, Pinoko plazan. Antolatzailea: Geredixa mikologi elkarte.
- 13:00etan, Iluntze dantza taldea.
- 14:00etan, jubilatuen bazkaria. Antolatzailea: Gizarte Ongizate arloa.
- 16:00etan, Los Txikis, Traña plazan.
- 17:00etan, xake erakusketa, Pinoko plazan. Antolatzailea: Abadiñoako Xake Taldea.
- 17:00etan, San Prudentzio pilota txapelketaren finalurrekoak. Antolatzailea: Atxarte pilota eskola.
- 17:30etan, tute txapelketa, eskolako aterpean. Antolatzailea: Barnebidetza.
- 18:00etan, entzierroa: *marrans* (ahariak). Irteera, Trañabarren etorbidean. Helmuga, Traña plazan. Antolatzailea: Olot-La Garrotxako Aoapix kultur taldea.
- 20:00etan, Olot-La Garrotxako produktuen dastaketa, Traña plazan. Antolatzailea: Olot- La Garrotxako Aoapix kultur taldea.
- 20:00etan, jaialdia, Traña plazan: Lotxo taldea.
- 23:00etan, *correfocs*, Oloteko Els Diables de la Gradera taldearen eskutik, Traña plazan. Antolatzailea: Olot-La Garrotxako Aoapix kultur taldea.

Apirilak 30, astelehena

- 11:00etan, umeentzako meatzarien jolas eta jokoak Kulkiren eskutik, Praza Galizian.
- 17:00etan, herriko jokoak, Praza Galizian.
- 20:30etan, frontenis txapelketaren finala.
- 23:00etan, *freestyle*, Traña plazan.

Antolatzailea: Supermoto Club taldea eta Udalaren Kirol arloa.

- 24:00etan, dj Mr Chase (Fever), Traña plazan.

Maiatzak 1, martitena

- 10:00etan, Saskibaloia partidak, erabilera anitzeko pabiloian. Traña-Matiena Herri Eskolako IGEk eratuta.
- 11:00etan, lasterketako auto eta motorren erakusketa, frontoian.
- 12:00etan, *freestyle*, Traña plazan.
- 12:00etan, paella txapelketa, Merkatu Plazan.
- 12:30etan, Motoplastiko Sari Nagusia eta lasterketako taldearen aurkezpena, Traña plazan.
- 13:00etan, *freestyle* finala, Traña plazan.
- 15:30etan, Ugasixo txapelketa, Merkatu Plazan.
- 16:30etan, pailazoak, anbulatorioko plazan: Txoro eta Mokoko.
- 17:00etan, San Prudentzio pilota txapelketaren finala.
- 17:30etan, tortilla txapelketa, Merkatu Plazan.

Maiatzak 4, barikua

- 21:00etan, San Prudentzio Texas Holdem poker txapelketa, frontoian.
- 23:00etan, Jaialdia Traña plazan: Akerbeltz.

Maiatzak 5, zapatua Mozorro Eguna

- 11:00etan, umeentzako kalejira: Mundus Mundi (Begirada taldea).
- 14:00etan, herri bazkaria, Traña plazan. Antolatzailea: Traña-Matienako koadrilak.
- 17:00etan, koadrilen arteko jokoak, Traña plazan.
- 19:00etan, koadrilekin eta Batugara txarangarekin kalejira.
- 22:00etan, bertsolariak, Errota kultur

etxean: Sebastian Lizaso, Igor Elortza, Onintza Enbeita eta Odei Barroso.

- Gai jartzailea: Eñaut Uruburu. Antolatzailea: Gogaikarri bertso eskola. Sarrerak Errotan, apirilaren 30etik aurrera; pertsona bakoitzak bi sarrera hartu ahalko ditu, gehienez.
- 22:45etan, mozorro txapelketako sari banaketa, Traña plazan.
- 23:00etan, jaialdia, Traña plazan: Boston Jai.

Maiatzak 6, domeka

- Goizean, Geu Be taldeak txahala erreko du, Traña plazan.
- 10:00etan, nekazaritza azoka, Traña plazan.
- 11:30etan, sagardo festa, Traña plazan.
- 18:00etan, herri kirolak, Traña plazan.
- 20:00etan, Donien Atxa botako dute, jaiak agurtzeko. Ardoa Barrura txarangak girotuko du ekitaldia.

Erakusketa

*Apirilaren 26tik maiatzaren 5ra, kartel lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa, Errota kultur etxean.

ondo pasala!

EROSKI
MÓVIL

Beti bezala preziorik onenean!

gutxieneko kontsumo gabe

2¹⁵ zent/min

8 zent/sms

5⁹⁹ bono internet euro/hilean 600MB

conect@kontratua

TERRAZAK ETA LORATEGIAK
MOMENTU PAREGABEAK

EROSKI
Abadiño zurekin

Mozorro Eguneko jaiaz koadrilan gozatzeko aukera

Traña-Matienako koadrilek lehia bizia jokatuko dute maiatzaren 5eko arratsaldean



Traña-Matienako koadrilek egun osoko egitaraua izango dute maiatzaren 5eko Mozorro Egunean. Eguna behar den moduan hasteko, herri bazkaria prestatu dute Traña plazan. Bazkaldu eta gero, 17:00etan, koadrilen arteko jokoetan lehiatuko dira. Jai giroagaz jarraitzeko, herriko hainbat taldek Batugara txarangagaz kalejiran zeharkatuko dute auzoa. Gauean, mozorro txapelketan irudimen handiena izan duenari saria emango diote. Boston jai taldearen jaialdiagaz amaituko dute koadrilek eguna.

Pertsona ospetsuari omenaldia

Ohiturari eutsiz txopoa jasota emango diote hasiera Matienako jaiari datorren barikuan. Bizkarra fanfarreak alaituko du giroa, eta Iluntze dantza taldeak saioa eskainiko du. Urtero legez, urteko pertsona ospetsuenaren saria nork jasoko duen jakinmina piztu du auzoan. Sari banaketara arte antolatzaileek sekretupean gorde gura dute omenduaren izena. Eguna amaitzeko, jaietako lehenengo gaua Luhartzen erromeria doinuek alaituko dute.

Aurtengo egitarauan hainbat nobedade prestatu dituzte. Besteak beste, Els Diablos de la Gradera kultur taldeak ekintza ugari prestatuko ditu.

Sari banaketara arte antolatzaileek sekretupean gorde gura dute omenduaren izena

Besteak beste, Els Diablos de la Gradera kultur taldeak ekintza ugari prestatu ditu

Paella, martitzenean

Jan-edanik ez da faltako aurten ere Traña-Matienako jaietan. Asteburuan antolatu ohi duten paella txapelketa aurten martitzenera pasatu dute, maiatzaren 1era. Egun berean afaritarako tortilla txapelketa prestatu dute. Urtero antolatzen duten jubilatuen bazkaria apirilaren 29an izango da, Nagusien Egunean, Gizarte ongizate sailak antolatuta. Maiatzaren 6an, Geu Be taldeak txahala erreko du Traña plazan.

Meatzarien jolasak umeei zuzenduta

Aizkoran eta txinga eroaten jardungo dute

Kulki herri jolasen taldeak meatzarien jolasak azalduko dizkiete apirilaren 30ean Galizia plazara hurreratzen diren umeei. Aizkora jokoa, txinga eroatea, idi dema, barrenatzaileen lana, futbola, igel jokoa eta beste hainbat jolasetan aritzeko aukera izango dute umeei, Luisfer Etxeberria antolatzaileak azaldu duenez.

Apirilaren 28an berriz, umeentzako quad-ak jarriko dituzte Abadiño Enquad taldeko kideek, Traña plazan. Arratsaldean, Trañabarren etorbidean, umeen jaialdian musika jarriko du Disko Pottokak.

Txoro eta Mokoko pailazoek, ostera, maiatzaren 1erako ipini dute hitzordua Matienan. Anbulatorioko plazan eskainiko dute emanaldia, arratsaldeko 16:30ean.



Gure Kide
Albaitaritzaklinika

Medikuntza - Análisi klinikoa - Ekografia
Erradiologia - Kirurgia - Ospitalizazioa
Ile-apainketa - Osagarriak

Murueta Auzoa, 1 - 48220 MATIENA (Abadiño)
Tel.: 94 620 16 21 - Larrialdiak: 655 88 14 22

Zainduz
FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13 - 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 94 465 71 32 - Mug.: 686 906 374

salmenta, konponketa eta boutiquea

MOTOS TABIRA

kontzesionario ofiziala
BENELL
SCORPA
AJP
KEEWAY
PIAGGIO

Pol. Arzubia, 10-b pabilioia 48220 MATIENA-Abadiño
94 681 4068
www.motostabira.com

San Prudentziori Traña-Matienan, San Fermini Iruñean legez, entzierroa eskainiko diote apirilaren 29an, domekan. Zezenak barik ahariak izango dira entzierroko protagonistak. Gurpildun ahariak bultzatzen ibiliko dira Herrialde Katalanetako AOAPIX (Oloteko Txerriaren eta Bildotsaren Lagunak) elkarteko kideak.

Arratsaldeko 18:00etan hasiko dute entzierroa San Prudentzio elizaren aurrean. Hiru txapligu botako dituzte abisua emateko, eta orduan, San Fermini kantatzen dioten antzera kantatuko diote Traña-Matienako santuari. Ostean, Traña plazarantz abiatuko dira ziztu bizian gurpildun ahariak. AOAPIX elkarteko Jaume Molinék azaldu duenez, entzierroaren ideia ezkon aurreko agur-afari baten otu zitzairen Oloten (Herrialde Katalanak). Orduetik hainbat alditan ospatu dute katalanez *encierro de marrans* edo *marranada* deitzen diotena.

Entzierroaren ideia ezkon aurreko agur-afari baten otu zitzairen. Katalanez, *encierro de marrans* edo *marranada* deitzen diote

Herrialde Katalanetan ere egiten dute sokatira, *estirada de corda*, eta berau berreskuratzean ezagutu dute Abadiñoko taldea

Abadiñogaz hartuemana

Abadiñar batzuk badute Oloteko jai berezi honen berri. Izan ere, Abadiñoko sokatira taldeagaz duela hamabost urte baino gehiagotik dauka hartuemana Olot herriak. Herrialde Katalanetan ere egiten dute sokatira, *estirada de corda*, baina galduta eduki duten ohitura izan da. Tradizio hori berreskuratzeke, Euskal Herriko Herri Kirol Federazioagaz eta Abadiñoko sokatira elkarteagaz hartuemana hasi zuten. Abadiñarrak hara, Olotekoak hona, hartuemana sendotzen joan da. Mendiolako artzainek behin Oloten bildots-jan ederra pres-tatu zutela kontatu du Molinék: "75 bildots prestatu zituzten burduntzi eran, mila pertsonarentzako. Ikusgarria izan zen".

Aharien entzierroa egin San Prudentzioren ome

Herrialde Katalanetako AOAPIX elkarteak jaki dastaketa eta correfoc



Gastronomia dastaketa

Entzierroaren ostean, Olotekoek dastaketa berezia ipiniko dute Traña plazan. 20:00ak inguruan hasita, La Garrotxa eskualdeko babarrunak -*fasols*- dastatu ahalko dira. Hemengoak baino babarrun txikiagoak dira horiek, eta sumendi lurretan hazitakoak izanik, oso zapore fina dutela azaldu du Jaume Molinék. Txerri butifarrarekin edo onddoekin probatu ahalko dira babarrun horiek. Horrez gainera, *pa amb tomaquet* (ogia tomateagaz), txerrikiak, pastel bereziak, intxaur berdez egin-dako *ratafia* likorra, cava eta yogurta egongo dira gastronomia dastaketan. Molinéren arabera, "badakigu Euskal Herrian jatun onak zaretela, baina ez da inor gosez geratuko".

La Garrotxa eskualdeko babarrunak dastatu ahalko dira, besteak beste, gastronomia dastaketan

AOAPIX elkarteko 15-20 pertsonek 'correfoc' ikuskizun piroteknikoa eskainiko dute

Solaguren kalea 3
MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
urtiaga.sl@terra.es

Urtiaga
gremioen-koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJU, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA, HORMIGOI,
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA

MAPFRE
BEGOÑA NAVARRO CAPANAGA
MAPFREKO DELEGATUA MATIENAN

San Prudentzio 2
Matiena - Abadiño
Tel.: 94 681 88 89
navarrb@mapfre.com

GISASOLA PENTSUAK SL

Pentsuak oro har - Haziak - Etxeko animatiak - Opariak - Txoriak
Loreak - Arrain tropikalak - Lorezaintzako produktuak - Indioilar, oilo
eta oilasko salmenta - Nekazaritzarako burdindegiko produktuak
Txoriak - Dortokak - Kaiolak - Osagarriak - ...

Trañabarren 27 • 94 681 66 87 • 48220 MATIENA-Abadiño

go dute, nez

refoc-ak ere eskainiko ditu



Amaitzeko, sua eta deabruak
AOAPIX elkarteak, apirilaren 29ko eguna amaitzeko, *correfoc* ikuskizun piroteknikoa eskainiko du. Elkarteko 15-20 pertsonak, Moliné tartean dela, *Los diables de la Gradera* deabruen taldea osatzen dute, eta akuilu, suzi eta esku-orgekin kalerik kale ibiliko dira 23:00etan hasita.

Correfoc-ean, deabruekin batera, Pim Pam Pum perkusio taldea ibiliko da. Jaume Moliné abadiñarrei kalejiran parte hartzeko gonbita luzatu gura izan die: "Arropa zaharrekin eta mauka luzeekin etortzea komeni da, hori bai; erretzeko arriskua dagoelako. Gu ohituta gaude horrenbeste urteren ondoren!".

Aurten Elortza, Lizaso, Enbeita eta Barroso

Bertso jaialdiak arrakasta handia izan ohi da sanprudentzioetan. Aurtengo saiorako, Igor Elortza, Sebastian Lizaso, Onintza Enbeita eta Odei Barroso bertsolariak iragarri dituzte antolatzaileek.

Eñaut Uruburu izango da gai-jartzaile. Adin desberdineko bertsolariak izan arren, esperientziadunak eta txapelketetan ibilitakoak dira laurak ere. Maiatzaren 5ean izango da bertso saioa, 22:00etan, Errota kultur etxean.



Motorrekin duten abilezia erakustera

Supermoto 13 elkarteak eta udalaren Kirol sailak antolatuta, Freestyle saioa egingo dute Traña plazan apirilaren 30ean. 23:00etan hasiko dute erakustaldia.

Aldapa artifizialak eta oztopoak ipiniko dituzte plazan, motordunek euren trikimailu eta mugimenduak erakusteko. Gasolina eta arriskua maite dituztenentzat, beraz, ekitaldi erakargarria izango da.



SPORT DURANGO, S.L.  

TAILERRA - MEKANIKA - TXAPA - PINTURA - ERAKUSKETA

ZERBITZU OFIZIALA:

Murueta z/g (Hiper Eroskiren aurrean) Matiena - Abadiño - Tel.: 94 620 33 92 - 94 681 76 44

Cafetería Oxford 

Matiena-Abadiño

ondo pasa jaietan!

Trañabarren, 7 - MATIENA-ABADIÑO
Tel.: 94 681 88 84 (Bizkaia)

Armando - Mary 

Trañabarren, 9
48220 Matiena-ABADIÑO
Telf.: 946817368

LA MAGDALENA
BASERRI TRESNETARAKO TRANSMISIOAK

ondo pasatu San Prudentzioetan

HARATEGI **PINILLA**
ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA  **BASERRIKO OKELA**

Trañabarren, 29
Tel.: 94 681 51 27
MATIENA - ABADIÑO

Garage Miguel

- GARBIKETA
- TAPIZERIAK
- MEKANIKA
- GURPILAK

Arzubia, 10 A
1 Pabilola
48220 Matiena
Tel.: 94 681 91 61
Fax: 94 621 82 64

Juan Ramon Azkonizaga
Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52

Banatzailea:

BODEGUILLA

TRAÑA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85



Launa plus
Ondua



Bodegas **Launa** Arabar Errioxa 

www.bodegaslauna.com
info@bodegaslauna.com
Tel.: 94 682 41 08



**Prebentzio
Sozietatea
FREMAP**

AURREIKUSTEZINA AURREIKUSTEN DUGU

Murueta kalea, 1
U.B.G Building eraikina,
1. solairua, 2-3 bulegoa
48220 Abadiño
Tel.: 94 681 27 87 / Fax: 94 681 27 94

www.prevencionfremap.es

[GOGOAN ZAITUGU]

Zure enpresaren osasuna zaintzeko behar duzun guztia eskaintzen dizugu:



Gestioa eta aholkularitza: Dena kontrolpean

- OSHAS 18.000
- Gestio auditoritza
- Enpresa jardueren koordinazioa



Segurtasuna lanean: Lanpostu bakoitza toki seguru bihurtzen dugu

- Lan ekipoaren egokitzapena RD 1215/97
- Segurtasun eta osasun plana eta koordinazioa, eraikuntza obretan
- Segurtasun aholkularitza merkantzia arriskutsuen garraiorako
- Autobabesa eta larrialdi planak
- Baliabide prebentiboak
- Atmosfera leherkorak
- Lana altueratan
- Lan espazio baztertuetakoko segurtasuna
- Mugikortasun planak
- Neurketa elektrikoak



Higiene industrialia: Laneko giro onena

- Agente fisiko, kimiko eta biologikoen neurketa eta ebaluazioa
- Material-zuntzen identifikazioa
- Barruko giroaren kalitatearen ebaluazioa
- Kontsumorako uraren analisisa



Ergonomia eta psikosoziologia aplikatua: Lan-tokia pertsonari egokitzen diogu

- Mugimendu errepikakorrak
- Postura derrigortuak
- Pisuen edo kargen eskuzko erabilera
- Eginkizun eta lanpostuen diseinua
- Faktore psikosozialen ebaluazioa
- Laneko jazarpen eta biolentzien protokoloen elaborazioa
- Lidergo prebentiboaren formazio espezifikoak



Lan medikuntza: Osasunaren gestio integrala

- Osasun kolektiboaren zainketa
- Osasun azterketak
- Osasuna sustatzeko kanpainak



Formazioa: Jakin beharrekoa

- Ikastaro programatuak
- Ikastaro espezifikoak enpresan
- On-line ikastaroak
- REA akreditazio ikastaroak
- Formaziorako bonifikazioen gestioak



Industria Araudiak: Ikerketa eta garapena, lan kalitatea hobetzeko

- Segurtasun araudia suteen kontra
- Atex dokumentazioa
- Segurtasuna lan espazio baztertuetan
- Ikuskapen arautuetarako aholkularitza (Presio tresna jasotzaileak, tentsio altu eta bajuak...)

Abesti berrienak Matienan joko ditu Leihotikan taldeak

Nafarrek maiatzean aurkeztuko duten diskoko ale batzuk aurkeztuko dituzte; Orion Child eta Seiskafes ere ariko dira



batuko ditu, eta CDan eta biniloan kaleratuko dute. Leihotikan-ek hogeituroko ibilbidea bete du aurtentzen. Hardcore (HC) melodikoa lantzen dute, eta Bad Religion edota Pennywise lako taldeen eragina igarri daiteke euren estiloan. Remonen ustez, "azken diskoaren aldean kantuen abiadura areagotu egin dugu, eta soinua distortsionatuagoa da". "Abesti batzuk daude estilotik urrunago, baina diskoaren bizkarrezurra HC melodikoa da".

Ikusgai dago aurrerapen kantua, bideoklip formatuan, www.leihotikan.net webgunean

Leihotikan taldearen jarraitzaileek ikusgai dute dagoeneko aurrerapen kantua, bideoklip formatuan, www.leihotikan.net webgunean.

Orion Child, etxean

Durangaldeko Orion Child eta Valladolideko (Espainia) Seiskafes ska taldeak ere parte hartuko dute kontzertuan. Orion Childek, heavy metal talde onenaren garaikurra irabazi zuen iaz, Espainiako Musika Independentearen sariketan. *A new dark apology* diskoa Finlandian ekoitzi zuten 2010ean. Taldekideetako batzuk Traña-Matienakoak izanda, euren zuzeneko auzotarren aurrean aurkezteko aukera edukiko dute.

Maiatzean argitaratuko du Leihotikan taldeak bosgarren diskoa. Edizio berriaren grabaketan ibili arren, badaukate kontzertuetarako astia, eta sanprudentzioetan geldialdia egingo dute, apirilaren 28an. Jaialdi berean joko dute Orion Child eta Seiskafes taldeek ere. Abestiak

Oraindik ez dute aurreratu izena. Hamabost kantu kaleratuko dituzte CDan eta biniloan

zuzenean probatzeko aprobetxatu, eta primizian eskainiko dituzte. Aitor Remon taldekideak dioenez, "Abadiñoako kontzertuan seguru kantu berri batzuk joko ditugula, abesti zaharrekin uztartuz, baina oraindik definitzeko daukagu errepertorioa".

Oraindik ez dute diskoaren izena aurreratu. Hamabost kantu





PROMOZIO BERRIA MATIENAN
46 etxebizitza libre:
 2 logela - 76,75 m²
 3 logela - 92,10/97,40 m²
 4 logela - 102,66 m²




- 20 etxebizitza tasatu:
 2 logela - 58,45 m²
 3 logela - 72,80 m²
- Garajeak eta trastelekuak

Tel.: 630 993 167 - 94 457 17 00 - www.inmorehala.com Salmenta bulegoa obran bertan

Durangaldeko Baserritarren Elkarte





Murueta, 6
Tel.: 94 681 87 92
48200 ABADIÑO BIZKAIA

ESTANKO ALBERDI



Zubiarte, 7 • Tel.: 94 681 40 33 • MATIENA



R. SAMUR

COMPRESORES SALMENTA ETA KONPONKETAK

Tel.: 94 681 89 67 Tel./Faxa: 94 620 09 42

Traña industriagunea -D, 13 pabilioia (Abadiño) E-mail: REPSAMUR@terra.es
www.reparaciones-samur.com



“Urte askoren ostean, ilusioa eragiten du txopoa altxatzeak”

Hogei urte joan dira azkenekoz jaso zutenetik; berriro egiteko gogoz bueltatu dira

Beteranoak bueltan dira. Irudietako abadiñarrek orain 20 urte parte hartu zuten azkenekoz, txopoa altxatzeko ekitaldian; txopoa jasotzen batzuk, jai-giroa sustatzen besteak. Bizikletan ibiltzen sekula ahazten ez den moduan, txopoaren inguruko errituak oraindik ondo presente dituztela diote. Guztira, koadrilako 30 bat lagun batuko dira eta horietatik 15 animatuko dira txopoari tiratzen.

Orain urte bi koadrilako afari baten mahainguruan sortu zen ideia eta aurten gauzatuko dute: “Txopoaren eguna barikuan da aur-

“Behin gozokiak eta kalimotxoak banatu genituen herritarren artean”

“Gure nahia azaldu genien eta ez zegoela arazorik esan ziguten”

ten eta horrek laguntzen du. Aste barruan, lanagatik dela eta bestelako konpromisoak direla, gatzagoa da jendea batzea. Barikuan, asteburua hasita dago”, argudiatu du Alfonso Bizkarrak.

“Urte askoren ostean, ilusioa eragiten digu txopoa berriro altxatzeak”, onartu dute veteranoek. Gainera, gaur egun txopoa jasotzen duten gazteek “besozabalik” hartu omen zituzten: “Gure nahia azaldu genien eta ez zegoela arazorik esan ziguten, gustura hartuko gintuztela”.

Azken hamarkada bietan, Traña-Matienak aldaketa asko bizi izan ditu, baina txopoaren tradizioak

bere horretan darrai: “Ez gaitu sorpresaz harrapatuko. Txopoa lepoan hartu eta herrira sartzeko momentua polita izaten da. Gogoan dut, behin batzuek txopoa zekarten bitartean beste batzuek gozokiak eta kalimotxoak banatu genituela herritarren artean”.

Koadrilako batzuk plazaren erdian deta besteak albotik animatzen egongo dira, baina denak mozorrotuta: “Zer mozorro jantziko dugun? Hori sekretua da”. Jaiari dagokionez maila handiko jaiak direla uste dute: “Beharbada lehen baino jende gutxiago ibiltzen dela sumatzen dugu”.

VIA LIDER

Neumáticos Etxebarria

neumáticos
ETXEBARRIA

Uribitarte Industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO (Bizkaia)
(Hiper Eroskiaren ondoan)
Tel.: 94 623 25 20 - Fax: 94 620 36 22

MUSIKA >

Hamabost talde, Greatest Hits jaiaren lehenengo zitan

Andoni Ruiz 'Txululu'-k aurkeztuko du saioa; zazpi taldek joko dute lehenengo partean, eta zortzik bigarrenean

Durangaldeko musikariek hautatutako hamabost talderen kantu klasikoek bertsioak izango dira Plateruenean entzungai, gaur. Greatest Hits jaialdiaren lehenengo Gaua 21:00etan hasiko da.

Berrizko Txintxaun Kolektiboa taldeko Andoni Ruiz *Txululu* aktoreak jardungo du gaur gaueko Greatest Hits Gauaren emanaldian aurkezpen lanak egiten.

Durangaldeko musika taldeen materiala zotz egingo dute emanaldietan

Aurkezpenaren ostean, zazpi talderen emanaldia egongo da saioaren lehenengo partean. Zozketa egingo dute ondoren, eta beste zortzi taldek eskainiko dute kontzertua bigarren partean.

Durangaldeko musika taldeen materiala zotz egingo dute Grea-

test Hits Gauaren emanaldi bietan ikusleen artean. Diskoak eta kamisetak zozkatuko dituzte.

Materiala salgai

Zozkatuko dituztenez gainera, Durangaldeko musika taldeen beste hainbat material ere egongo da Plateruenean eskuragai. Orain bost urteko jaialdiaren bideoa eta CDa ipiniko dituzte emanaldi horietan salgai. Gainera, Greatest Hits Gauaren bigarren edizio honetarako atera dituzten kamisetak ere erosi ahalko dituzte Plateruenera bertaratzeko direnek.

Greatest Hits gau bietako kontzertuen soinua eta bideoa grabatuko du jaialdiaren bigarren edizio honetan ere antolakuntzak.

Apirilaren 27an izango du Greatest Hits Gauak bigarren emanaldia. Eneko Abasolo *Abarkas* bertsolari iurretarrak aurkeztuko du bigarren emanaldi hori.

Gaur eta apirilaren 27an, Durangaldeko 29 taldek jardungo dute bertsioak eskaintzen. ■ I.E.



Iban Gorriti



Iban Gorriti

MUSIKA >



Bogoroditsie, Silboberri eta Herri Maite elkartuko dira Tronperrigaz

Tronperri dantza taldearen 50. urteurrena ospatuko dute, bihar, Andra Marian

Durango Bogoroditsie abesbatza (argazkian), Silboberri txistu taldea eta Herri Maite akordeoi taldea gonbidatu ditu Tronperri dantza taldeak eurekin emanaldian jardutera. Durango dantza taldea sortu izanaren 50. urteurrena ospatzeko, hainbat ekimen antolatu dituzte azken hilabeteotan. Urteurrena ospatzeko atondu duten egitarauan jasota dago apirilaren 21eko Andra Mariakoa ere.

Ekainean burutu zuten Tronperri dantza taldearen urrezko ezteguak ospatzeko ekitaldi nagusia Durango San Agustin kultur-gunean. Taldearen lehendakari

izandako hamahiru lagunek oroi-garri bana jaso zuten ekaineko ekitaldi hartan.

Ekitaldi horren ostean, Durango kulturaren hainbat arlotan lanean diharduten elkarrekin eskaini ditu emanaldiak Tronperri: Durango Orfeoiaz, Musika Bandagaz edota Gaztedi dantza taldeagaz jardun dute, esaterako. Emanaldi gehiago antolatuko dituzte ekaina bitartean. ■ I.E.

Urteurrena Durango beste talde batzuekin elkarlanean ospatzen

PLATERUENA Durango Kafe Antzokia

www.plateruena.net

2. greatest hits gaua

APIRILAK 20 eta 27 21:00etan
2. GREATEST HITS GAUA. 6euro (5+1 zozketa)

APIRILAK 26 20:00etan
KANTULAGUN
KANTUZALEEN TXOKOA
Urte osoko izen ematea: 15euro.

kantulagun

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

DON BALTASARREN ANIMALIAK
Teloncillo Teatro (Castilla y Leon)

Apirilak 22 • 18:00

San Agustin KULTUR GUNEA DURANGOKO UDALA

Hitz
liburu-denda

artekalea 14,
durango (bizkaia)
info@hitzliburudenda.com
946 810 776

OSASUN GIDA



PEDAGOGIA



UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA

Laguntza goiztiarra, Psikomotrizitatea,
Fisioterapia, Logopedia

Juan de Olazaran, 1 behea
48200 DURANGO

tf: 94 466 83 70 - 615 782 090

FISIOTERAPIA

Zainduz

FISIOTERAPIA OSTEOPATIA

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea, behe-eskuma
48220 MATIENA-ABADINO

tf. 94 465 71 32
mug. 686 906 374

PODOLOGIA



Gaixotasunak - Ortopedia
Oinaren kirurgia

IMQ - SANITAS - ARESA
Ermodo, 2- 1. eskuma • DURANGO
tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51



HIRU FISIOTERAPIA

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00



GOIATZ MURUA LETURIAGA

PODOLOGOIA
Kiropradia, Onikopatia, Alterazio
Dermatologikoak, Ibilkerako alterazioak

Monago Torre, 4- behea
48200 DURANGO

tf: 94 620 36 30



J.L. URRETA ZABALO

MEDIKU ESTOMATOLOGOIA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
ortodontzia

Zumalakarregi 18- 1. ezk.
48200 DURANGO

tf: 94 681 22 00



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILIZAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoak, txisari
ezin eusteak, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

ESTETIKA



www.medicinaesteticaDurango.com

Laser berria:

Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitate-zelulitis;
Laser: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...
Adinen kontrako tratamenduak: orbanak, botox...

Txatxiena 6
48200 DURANGO
tf. 94 681 03 87

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOIA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psicologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

@anbotokirola

KIROLAK >

Igoera historikoa lortzeko atarian dago lurretako futbol taldea

Lehenengoz Ohorezko mailara igo daitezke; Berriz, aldiz, matematikoki jaitsi daiteke



lurretako futbol taldeak domekan jokatuko du, 11:30ean, Iturrigorri taldearen kontra, Bilbon. Kepa Aginako

Athletic-ek gabarra nola, lurretakok prest du kamioi berezi bat, eskura duten igoera historikoa herritarrekin prozesioan ospatzeko. Asteburuan Iturrigorriaren aurka irabazten badute eta Moraza B nahiz Padura ez badira kapaz hiru puntuak batzeko, Ohorezko mailan jokatuko dute datorren denboraldian. Historikoa litzakete, sekula ez dutelako maila horretan jokatu.

lurretakoren ibilbide arrakastatsua ez da denboraldi honetara bakarrik mugatzen. Iaz Lehenengo erregionaletik Maila gorenera igo ziren —orduan ere

kamioi bereziaren gainean ospatu zuten lorpena— eta aurtentzen, beste denboraldi gogoangarri baten ostean, ametsa ematen zuena errealtate bilakatzeko zorian daude.

Asteburu honetan ez bada, hurrengoan izango da. Baina, zuziriaren metxa piztuta dago. Jokoan geratzen diren 18 puntuetatik lau batzea nahikoa dute igoera segurtatzeko. "Zenbat eta lehenago igo hobea", dio Jon Gurutz Vazquez entrenatzaileak, eta mentalitate horrekin joango dira domekan Bilbora: "Gu irabaztera joango gara. Eskatzen

hasita, polita litzakete hirurok irabaztea (lurretako, Moraza B eta Padura) eta hurrengo asteburuan igoera etxean lortzea. Berdinketa batekin nahikoa izango genuke".

Igoera domeka honetan lortzen badute ere, ospakizun nagusiak datorren asterako utziko dituzte. Hilaren 28an, 17:00etan, Mungiaren kontra jokatu ostean, kamioi berezira igoko dira, jai giroa herri osora zabaltzeko: "Azken ahalegina falta zaigu. Denboraldi itzela egiten dabilta eta oso pozik gaude", azaldu du klubeko presi-

dente Jose Antonio Legorburuk: "Gainera, Gazte mailako taldea ere lider doa bere mailan".

Berriz jaitzeko zorian

lurretakoren guztiz kontrako bidea egitekotan da Berriz. Iaz Ohorezko mailan zebiltzan eta datorren denboraldian, miraririk ezean, erregionaleko Lehen mailan ariko dira. Asteburu honetan bertan jaitsi daitezke.

Zaldua ere jaitziera postuan dago, baina hiru puntura du salbazioa. Iaz igo ziren Maila gorenera eta aurtentzen mantentzea lorpen handia litzateke. ■ J.Derteano

Herriartekoan Durango eta Berriz, ondo

Pilotan, Durangok eta Berriz indartsu hasi dute XLIII. Bizkaiko Herriarteko Txapelketa. Joaneko jardunaldian Durangok hiru partidua irabazi zituen Etxebarriri. Barikuan, 19:00etan, jokatuko dituzte bueltako partidua Durangon. Berriz ere bere aldera ekarri zuen kanporaketa, Bilbo 1-2 menderatu ondoren. Buektako partidua gaur, 20:00etan jokatuko dituzte.

Mallabiak, lurretak eta Atxondok hurrengo faseetan hasiko dute txapelketa.

Zestean Durango da eskualdeko ordezkari bakarra. Lehen kanporaketan Gernika dute arerio. ■ J.D.

Lau t'erdiko finalak erabakiko dira Abadiñon

San Prudentzio Pilota Txapelketan lau t'erdiko modalitateari dagozkion finalak erabakiko dira domekan, 16.30ean, Traña-Matienako pilotalekuan.

Nagusietan lau protagonistetatik hiru Durangaldekoak dira. Lehenengo partiduan Asier Berasaluze berritarrak Igor Azpiri elorriarraren kontra jokatuko du. Ostean, Rober Uriarte abadiñarrak Beitiaren aurka borrokatuko du finalerako txartela.

Gazteen mailan Ibarondo eta Atutxaren, eta Irribarria eta Elizalderen artekoak dira finalerdi biak.

Finalak datorren asteburuan jokatuko dituzte Traña-Matienako San Prudentzio jaien barruan. ■ J.D.

Elorriok maila segurtatu ahal du, lurretakori irabazten badio

Bihar derbia jokatuko dute, Arripausuetan



lurretakok sailkapenaren erdian dago, eroso. K.A.

Liga amaitzeko bost jardunaldien faltan, estuasunetatik nahikoa aparte dabilta lurretakok eta Elorriok derbia jokatuko dute Arripausuetan. Inork izatekoetan, Elorriok du hiru puntuen behar handiagoa. Taldea jaitziera postuetatik zortzi puntura dago eta, derbiko hiru puntuak eskuratuz gero, etxeko lanak ia eginda izango dituzte. Iaz erregionaleko Bigarren mailatik Lehenengo mailara igo ziren, eta aurtentzen mailan geratzea dute helburu. Dena dela, kostatzen ari zaie maila segurtatzea; azken 11 partiduetan hiru puntu bakarrik batu dituzte.

lurretako sailkapenaren erdian dago, eta jokoan partidua irabaztearen ohorea baino ez dauka. Azken bost partiduetatik hiru irabazi dituzte. ■ J.D.

Futbol campusa antolatuko dute uztailean Abadiñon

7 eta 12 urte arteko gazteentzako da

Abadiño kirol erakundeak, 7 eta 12 urte arteko gazteentzako futbol campusa antolatu du uztaileko Astolan. Txanda bi egongo dira: uztailearen 2tik 7ra eta uztailearen 9tik 14ra. Txanda bakoitzean gehienez 48 gazteentzako parte hartu ahal izango dute.

Campusaren helburuak hauek dira: futbolarekin lotuta dauden mugimendu gaitasunak, teknikoak eta taktikoak garatzea; euskararen erabilera bultzatzea, eta giza-baloreak sustatzea (erreprestua, elkarta-

sun...). Koordinatzaile lanetan ariko dira Jon Diaz de Cerio eta Eneko Erdoiza. Ekimenen artean, asteko egun batean San Mameserako egunpasa antolatu dute.

Izen-ematea

Kanpua 105 euro izango da. 10 euroko deskontua izango dute Abadiñon erroldatuek, erakunde jokalariek eta anai arrea bi edo gehiago dituztenek. Izena emateko, 663 024 782 zenbakira deituta edo www.abadinoke.eu bidez. ■ J.D.



Distantzia laburrean zein sprint modalitatean Euskadiko txapeldun geratu da Gurutze Frades.

Federazioak onartu egin dio kexa Gurutze Fradesi

Durangoko duatloian deskalifikatu zutenean durangarrak kexa aurkeztu eta, arrazoia eman ostean, Euskadiko txapeldun berria da

Zeresan handia eman zuen martxoaren 31n jokatu zen Durangoko duatloiak. Epai-le berak sei duatloilari deskalifikatu zituen kontrako erreia zapaldu zutela argudiatuta. Tartean zegoen Gurutze Frades durangarra (Mugarra TT). Haserre, erreklamazioa aurkeztu zuten Euskadiko Triatloi Federazioan eta ebazpenak arrazoi eman die. Beraz, lasterketako bigarren postua berreskuratu du eta, lehen euskalduna izan zenez, distantzia laburreko Euskadiko txapeldun berria da.

Era berean, Mugarra ere taldekako txapeldun geratu da,

Mugarra ere taldekako txapeldun geratu da, denborak batuta

egun hartan Fradesek egindako denbora Jone Aizpurua eta Oihana Garciarenagaz batuta.

Fradesek adierazi duenez, "ebazpenak dio, kontrako erreia inbaditu daitekeela kasu konkretu batzuetan, asfaltua egoera txarrean dagoenean, esaterako, atletak minik hartu ez dezan". Txapela eman dionez, duranga-

rra gustura dago ebazpenagaz, baina argitu gura izan du: "Sekula ez dut kontrako erreia inbaditu".

Sprint modalitatean ere bai Gernikako duatloian ere, Frades bigarren sailkatu zen joan zen asteburuan, eta berriro ere lehenengo euskalduna izan zenez, Euskadiko txapelketa irabazi zuen sprint modalitatean. Lasterketa ia osoa bakarrik egin zuen durangarrak. Abadiñoko Laubideta Triatloi Taldeko Maite Unzueta, berriz, zortzigarren sailkatu zen Gernikan. ■ J.D.

Europako Radical Masterreko lehenengo lasterketan pilotu legez dituen dohai handiak erakutsi zituen Igor Urienek. Bera baino esperientzia handiagoko pilotuen aurka eta apenas ezagutzen zuen zirkuituan, hirugarren eta bosgarren sailkatu zen, lasterketako txanda bietan. Horrela, Silverston lako zirkuitu entzutetsuan podiumera igotzea lortu zuen.

Bigarren zihon eta azken bihurtunean aurreratu zuten

Gainera, gutxi falta izan zitzaion bigarren amaitzeko. Azken bihurtunean aurreratu zuten: "Set-up-agaz [autoa presatu] ez genuen erabat asmatu eta amaieran kosta egiten zitzaidan barketa maneiatzea", azaldu du. Masterreko bigarren lasterketa Spa zirkuituan (Belgika) izango da, maiatzaren 6an. ■ J.D.

Igor Urienek podiuma lortu du Silverstonen, estreinaldian

Europako Radical Masterreko lehenengo lasterketan hirugarren izan zen abadiñarra



Igor Urien, eskuinaldean, podiumeko hirugarren tokian.

ADITUAREN TXOKOA

Gotzon Gomez
Errugbi entrenatzailea



Euskaldunak tituluaren bila

Ohorezko mailako RENFE Liga azken txanpan sartuta dago. Hamazortzi jardunaldi jokatu ondoren hiru talde euskaldun ditugu final laurdenetan. Frantziako Top 14an erabiltzen duten bide berbera hartu du Federazioak, eta lehenengo sei sailkatuen artean erabakiko da txapelduna.

Lehia honetan Ordizia, Getxo eta Gernika ditugu. Goierriarrek finalerdietarako txartela bermaturik dute, sasoi erregularrean bigarren postuan amaitu ondoren. Bizkaitarrek, ostera, final laurdenak jokatu beharko dituzte kanpoan, norgehiagoka guztiak partida bakarrera baitira.

Batetik, getxoitarrek La Vila dute aurkari, eta aurrera egingo balute Valladolideko VRAC Quesos Entrepinares aurkituko lukete finalerako bidean. Bestetik, basurdeek Santboiana garaituz gero, Ordizia izango lukete arerio.

Finala maiatzaren 13an izango da. Hiru talde euskaldunen ibilbidea ikusita goierriarrek ikusten ditut txapelketa lortzeko aukera gehiagorekin. Beren zelaian oso indartsuak dira eta gutxienez finalean egongo direla uste dut. Urte batzuk daramatzate hor goian eta eskarmentua ere hartzen ari dira. Getxok sekulako denboraldia egin du eta final laurdenetan egotea nire ustez sari handia da. Gernikaren kasua beste kontu bat da, lesio ugari izan ditu eta indar aldetik justu samar ikusten ditut, baina batek daki.

Bestalde, igande honetan Ordiziak Kopa finala jokatu du Palentzian Valladolideko Cetransa El Salvadorren aurka. Maila goreneko lehen titulua irabaz dezakete. Hemendik zorte ona opa diet, merezi dute eta.

Bihar harbide gainean ibiliko dira ziklistak, Durangaldean

Zapatuan hirugarren aldia egingo du Bizkaikolore Emakumeen III. Klasikoak. Lasterketak hiru maila izango ditu: kadete, gazte eta elitekoa. Euskaldun Torneorako eta Bizkaiko txapelketarako puntuagarria da. Lurretan hasi eta Elorriko amaituko da lasterketa. Urtero legez, lasterketak ikusmin berezia eragingo du Elorriko, San Agustin inguruan harbidetik ibili beharko direlako txirindulariak. Kadeteak 14:30ean irtengo dira eta gazte zein nagusiak, 16:15ean.

Euskaldun Torneon hiru lasterketa egin dituzte. Sailkapenean ondoen kokatuta dauden eskualdeko ordezkariak dira Olatz Agorria kadeteetan (Ciclos Iturriaga-Autos Elorri) eta Lourdes Oiarbide gazteetan (Beste-Alde). Nagusietan Bizkaia-Durango taldeko Joannen Hogan australiarra nabarmendu da orain arte, joan zen astean sprintean, Lezamako sari nagusian.

Bestalde, pistako txirindularitzari dagokionez, emakumeen Euskadiko txapelketa jokatu dute, domekan, 17:00etan, Berrizko belodromoan, kadete eta gazte mailako ziklistek. Eurria bada, aste-bete atzeratuko dute. ■ J.D.

Agenda

FUTBOLA HIRUGARREN MAILA

Kulturala - Zalla
Zapatuan, 17:00etan, Tabiran
MAILA GORENA
Berriz - Urduliz
Domekan, 11:30ean, Berrizburun
Zaldia - Trapagaran
Zapatuan, 18:00etan, Solobarrian

ARETO FUTBOLA HIRUGARREN MAILA

Mallabia - Sasikoa
Domekan, 17:45ean, Zaldibarko kiroldegian
Elorrioko - Vitorla
Zapatuan, 18:00etan, Elorriko kiroldegian
EUSKAL LIGA

Sasikoa - Eskoriatza

Domekan, 12:00, Landakon
EMAKUMEEN LIGA
Iurretako - Elorri
Zapatuan, 17:30ean, Larrakozelain

SASKIBALOA LEHEN ERREGIONAL BEREZIA

Tabirako - Askartza
Zapatuan, 16:45ean, Landakon
Anbotopeko - Romoko Ezkorak
Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

XAKEA GAZTEEN TXAPELKETA
XIV. Durangaldeko eskolarteko torneo
Domekan, 09:30ean, Zentro Palentinon

Greminioen gida

ELEKTRONIKA

URBASA ELEKTRONIKA
TELEKOMUNIKAZIOAK

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SOINUA - BIDEOA - IRRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLEKTIBOAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13 • Durango
Tel.: 94 681 33 03 • Fax: 94 620 15 80
urbasa@urbasatel.com
www.urbasatel.com

Panasonic

Televés
Instalazioak
Otzola

AROTZERIA

EGUIA S.L.
AROTZEGIA

• GREMIOEN KOORDINAZIOA •

Tel.: 94 681 77 46
Faxa: 94 605 69 06
Mug.: 669 655 169
Mug.: 629 587 653

Tabira kalea, 54 • 48200 Durango • info@carpinteriaegui.com



DEKORAZIOA

Jaio barnizatuak

- Markoen, ateen, zokaloen, armairu aurrekaldeen eta era askotariko altzairuen lakadura.
- Pintura eta pintura apaingarria.
- Era guztietako zaharberriak egiten ditugu.

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - Berriz
Tel.: 94 682 41 43 - 658 75 84 21
Fax: 94 682 48 95 - info@jaiobarnizatuak.com



GARBIKETAK

AZKARGI
GARBIKETAK

Bulego eta komunitate mantenimendua
Obra osteko garbiketa
Kristalizatuak eta alfombra

Goietia, 46 - 2. esk - Elorrio - 615 79 12 15

ELEKTRIZITATEA ARGIZTAPENA

Material elektrikoaren salmenta

PUJANA
ELECTRICIDAD

Urkiola 2, behea - 48200 DURANGO - Tel.: 605 705 818

ITURGINTZA

Solaguren kalea 3 - ABADIÑO
Tel.: 94 681 44 74
Faxa: 94 621 53 74
urtiaga.sl@terra.es

urtiaga
gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENA



LORAZAINTZA

Jardines
Patxi
Lorategiak

Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik

Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

ARGIZTATZE TEKNIKAK

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, behea
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com



Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industriagunea, 6
48215 Iurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com



Ubide
iturgintza

188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

Iturgintza, gasa eta berokuntza



AISIALDIA >

gazte gara gazte!

“Norbere burua hobeto ezagutzeko balio izan digu Saharako bizipenak”



Martxoaren 30ean irten zuten Elorriotik Tinduferra bidean, saharauiekin egun batzuk pasatu eta hango bizimodua hurretik ezagutzeko. Kirolgunearen proiektuan beste pausu bat eman dute, gainera. Emozioz beteta esan zieten agur saharauiei, eta sentipen indartsuekin egin dituzte adierazpenak.

Saharauiekin astebete egin eta gero, atzera ere eguneroko bizimodura bueltatu dira bidaiari elorriarrak. 30 lagun egon dira erre-fuxiatuen kanpamentuetan, Amgala herrian (Aljeria). Kirolgune baten proiektuan lan egitera eta herria zein biztanleak ezagutzera joan ziren.

25 ikaslek parte hartu dute, irakasle, udal ordezkari eta Elorri-

ko Lajwad elkarteko kideekin batera. Hango familien etxeetan pasatu dituzte egunak. Esperientziak berba egitean, han zerbait utzi dutenaren sentsazioa azaldu dute Ane Gallastegik, Ander Losadak eta June Irazuk, institutuko ikasleek: “Familiako beste kide bat ginen; nire etxeko aititak esan zidan bere bilobak beste gura ninduela dagoeneko”, esan du Gallastegik. Han-

go bizipenak “markatu” egin dituela esan dute, eta Losadak dioenez, “norbere burua hobeto ezagutzeko balio izan digu”.

“Txipa aldatuta”

Irazuren ustez, hangoa bizi egin behar da, “ezin da kontatu”. Edozelan ere, badute zer esana gazteek. Bueltakoan, “txipa aldatuta” etorri ei dira. Ura, argia edota jatekoa beste era batean baloratzen dituztela diote. Jan, hala ere, asko egin dute Amgalan: “Pila bat eman digute jaten, eta guri eman ostean jaten zuten eurek”.

Saharauiekin hartu-eman estua izan dute egun hauetan. “Uneoro zaindu egin gaituzte”, diote gazte elorriarrek. Saharaienganako ekarpenaz galde-tuta, hurrengoa dio Losadak: “Gu han egon garenean, ez dute euren arazoetan pentsatzeko astirik eduki”. Galdera ugari egin dizkiete saharauiek elorriarrei, hemengo bizitzaz eta familiaz. “Heldu ginen egunean, goizeko 07:00ak arte

egon ginen berriketan”, azaldu du Gallastegik.

“Katigatu” egiten ei du esperientziak. Losada eta Irazu lehengoz joan dira, baina Gallastegik errepikatu egin du. Hirurek bihar bertan hartuko lukete atzera ere hegazkina.

“Helburua beteta”

Kirolgunearen egitasmoari dago-kionez, “helburua beteta” itzuli dira, Josu Etxaburu institutuko zuzendariak dioenez. Futbolzelatik harriak kentzen ibili ziren, marrak margotu zituzten eta ateei sareak ipini zizkieten.

Baina, materialari baino, balio pertsonalari ematen diote garrantzia irakasleek. Rakel Amuriza Txintxirri Ikastolako irakaslearen ustez, beste lurralde eta egoera batzuk ezagutzea aberasgarria da gazteentzat.

Datorren urtean guztiak egin gura lukete osterera ere bidaia. Ez dakite posible izango ote den, baina ahalegina egingo dute.

Bueltakoan, ura, argia edota jatekoa beste era batean baloratzen dituzte

“Pila bat eman digute jaten, eta guri eman ostean jaten zuten eurek”

“Han egon garenean, ez dute astirik eduki euren arazoetan pentsatzeko”



laguntzaileak



“Gazteek eta nagusiok, gauza asko ikasi ahal ditugu elkarrengandik”

Domeka honetarako Zelaietako eta Traña-Matienako nagusien elkarrekin Belaunaldi Martxa prestatu dute Abadiño auzoetatik

Aste osoko euri denbora ikusi eta gero, domekarako eguzki apur bat espero dute. Belaunaldi Martxa antolatu dute Zelaieta eta Traña-Matienako nagusien elkarrekin. Ume, gazte, heldu eta nagusien hartuemanak bultzatzeko, belaunaldi guztientzako moduko hiru ibilbide prestatu dituzte. Eskualdean iaz egin zuten lehenengoz martxa berezi hori, Elorrioren; aurtan Abadiño hartu du lekukoa. 2012 Europako Zahartze Aktiboaren eta Belaunaldi arteko Elkar-tasunaren urtea da.

Nondik nora izango dira domekako ibilbideak?

E. A. Agirre: Ibilbideak oso politak dira. Lehenengoa Muntzaratzetik buelta egitea da, eta hori gurgildun aulkian daudenek ere egiteko modukoa da. Bigarrena, Gaztelutik ia jende guztiak egiten duena da; eta hirugarrena luze-txoagoa. Denek irtetzen dute trinketetik, eta amaieran ere bertan elkartuko gara, ordu bete inguruko jai batez.

Jai eta guzti, beraz?

E. A. : Herriko talde askoz bertan egon gara, boluntarioak eta eskatzeko. Alluitz mendi taldeak asko lagundu digu ibilbidea egiten eta domekarako bertarako ere herriko jendea inplikatu gura izan dugu. Izan ere, gu bakarrak, ez gara inor.

Martzel Uria: Oso erantzun ona jaso dugu. Sokatira taldekoak etorriko dira, umeekin eta nagusiekin sokatiran egitera, Done Zezili abesbatzak abestiak kantatzeko orriak ekarriko ditu, Txanbolin taldeko txistulariek ere emanaldia egingo dute, batukada ere egongo da, dantzariak ere, aita-seme batzuek trontzan ere egingo dute...

Nagusien elkarrekin jendea animatuta dago?

Ines Otxoantesana: Egin ditugun batzarretan jendea animatuta ikusi dugu, baina gero animatu behar dena kanpoko jendea da, gazteak eta umeak-eta... Denei esaten diet: aitita, amama, bilobak eta denak, denak martxara! Ume txi-

kia daukazula? Ba gurditxo eta guzti! Buelta txikiena egin, eta kitto.

Juan Luis Elorza: Eskoletan animatuta ikusi ditugu irakasleak, eta uste dut hortik jende asko mugituko dela. Ume txikiak mugitzen badituzte, aitita-amamak ere, seguru etorriko direla.

Martxaren helburua belaunaldien arteko harremana sustatzea da. Galdu egin den zerbait dela ikusten duzue?

E. A.: Europan belaunaldien arteko hartuemanak eta zahartze aktiboa bultzatzeko lege batzuk onartu dira azken urteotan. Lehen jubilatuen elkarrekin euren txokoak izaten ziren, kartetan egin eta han-

“Eskoletan animatuta ikusi ditugu; umeak mugituz gero, familia osoa etor daiteke”

txe egoteko. Orain denok elkartzea bultzatu gura gaituzte. Gauza asko dauzkagu elkarrengandik ikasteko, nagusiok gazteei eta alde-rantziz.

I. O. : Oraingo gazte hauek zaharrek batzeko ez daukate gogo handirik; atzeraka egiten die. Adin guztietako jendearekin egoten naiz ni. Askok irtetzen dut kalera, eta ikusten dut, familiakoekin ezetz, baina bestela ikusten dut gazteak zaharrei buruz txarto esaka dabilzala. Jai Batzordeetan ere, ikusten dudana da leku askotan ez dutela gura izaten guk ezer edukitzea.

E. A.: Abadiño osteraz; gu inplikatzeko gura dute. San Trokazeko jaietan parte hartzeko eskatzen digute.

I. O. : Nik uste dut nagusiok udal-txean ere gure lekua eduki behar-ko genukeela, gure premien berri emateko.

Nagusiek barneratuta daukate aktibo izate horren beharizana?

I. O. : Batzuek bai, baina beste askokez. Nibaino gazteago batzuek ere, informatika ikastaroak-eta



Martzel Uria, E. A. Agirre, Ines Otxoantesana eta Juan Luis Elorza.

“Antolaketa herriko jendea inplikatu gura izan dugu eta erantzuna oso ona izan da”

aipatzerakoan, "nik ez dut balio" eta horrelakoak esaten dizkizute. Konplexu asko dute batzuek.

JL. E. : Batzuek ez dute ardurarik hartu gura; gauzak besteek egitea gurago dute.

E. A. : Baina gauza asko egin ditza-kegu. Bizkaiko Nagusiak elkarrekin batzarra eduki dugu asteen, eta esan digute gure inguruko premiekin adi egoteko. Eurek Aldundia-gaz kontaktuan daude eta Aldun-

dia gauza askotan nagusioi laguntzeko prest dagoela esan digute.

I. O. : Jende nagusi asko pobrezian dago, eta ez dira ausartzen eskatzen, nagusienak batez ere. Bilbo-ko federaziotik esaten digute adi egoteko, esatera ausartu ez arren, beharizana daukatela askok-eta.



IBILBIDEAK

Ibilbide luzea (3 ordu)

Irteera: 10:00etan Trinketeko plazatik. Muntzaratzera abiatuko dira, eta gero Gaztelura. Ondoren, Traña-Matienara joan, eta espaloia jarraituta, Eroski albotik, trenbidera, eta Durangoko bidegorria hartuta Astolara joango dira. Handik Zelaietara bueltatuko dira.

Ibilbide ertaina (ordu 2)

Irteera: 11:00etan Trinketeko plazatik. Muntzaratzera joan, eta bertatik Gaztelura abiatuko dira. Gero Astolara arteko ibilbidea egin, eta buelta egingo dute Zelaietara.

Ibilbide laburra (ordu eta erdi)

Irteera: 12:00etan Trinketeko plazatik. Muntzaratzeko Dorre-rainoko ibilbidea egin, eta bertatik Zelaietara egingo dute buelta.

Amaieran jai txiki bat egingo dute: sokatira, dantzariak, musika...



luz, Elorrioren zuten lehenengo martxa.

AGENDA >

>ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdiaren aurretik.



Berrizko kultur etxean, apirilaren 21ean, 20:00etan

YO QUE TU ME COMPRABA UNA HARLEY

Amparo izeneko emakumea da Cristina Castillok antzezten duen obraren protagonista. Bizitzagaz nazkatuta dago Amparo, eta antzerkiak ematen dio bizipoza. Iragan ilun batetik etorkizunera abiatuko da *Yo que tu me compraba una Harley* lanean.

ANTZERKIA

ABADIÑO

>> **Apirilaren 21ean**, Glu Glu Producciones taldearen *La lechuga*, 20:00etan, Errota kultur etxean.

BERRIZ

>> **Apirilaren 20an**, *Los animales de Don Baltasar*, 18:00etan, Kultur Etxean.
>> **Apirilaren 21ean**, Cristina Castilloren *Yo que tu me compraba una Harley*, 20:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

>> **Apirilaren 22an**, *Don Baltasarren animaliak*, 18:00etan, San Agustinen.

ZORNOTZA

>> **Apirilaren 21ean**, *Los animales de Don Baltasar*, 18:00etan, Zornotza Aretoan.

BERTSOAK

ELORRIO

>> **Apirilaren 20an**, bertso afaria **Andoni Egaña** eta **Sebastian Lizasogaz**, Gazetako elkarteak.

ERAKUSKETA

DURANGO

>> **Maiatzaren 6 arte**, **Javier Valverderen** margolanak, Durangoko Arte eta Historia Musean.

IRTEERA

DURANGO

>> **Apirilaren 24an**, bisita gidatua **Alhondigara**. Izena emateko, nagusien udal egoitzan, Astarloa kalean.

KONTALARIA

DURANGO

>> **Apirilaren 20an**, **Carolina Rueda** eta **Pepito Mateo**. Helduentzako saioa, 20:00etan, udal liburutegian.

IURRETA

>> **Apirilaren 27an**, **Rai Bueno** ipuin kontalaria, 17:30ean (3 eta 4 urtekoentzat) eta 18:00etan (5 urtetik gorakoak), Herri Bibliotekan.

>> **Apirilaren 27an**, **Primigenius**. Helduentzako saioa, 20:00etan, Bibliotekan.

ELORRIO

>> **Apirilaren 20an**, ipuin kontalaritza saioak, Ateneoan: **Beatriz Egizabal**-en *Ni... ta punto*; **Mimi Barthelemy**-ren *El fulgurante*; **Carolina Rueda**-ren *Cuentos por deformacion profesional*; **Pepito Mateo**-ren *El arbol de los deseos*; eta **Alexis Diaz**-en *Ensalada de palabras con pimienta (o cómo hacer poesia y no subir de peso)*

JAIK

IURRETA (Oromiñoko San Marko jaiak)

>> **Apirilaren 24an**, **Donien Atxa** altxatzea, iluntzean. Ostean, parte hartzen duten guztientzat, makailau errea.

>> **Apirilaren 25ean**, **Kalejira** goizean. Ostean, meza. **Herri bazkaria**. Arratsaldean, **briska** eta **igel txapelketa**.

>> **Apirilaren 28an**, **ume dantza** eta **jolasak**. Arratsaldean, **tortilla lehiaketa**. Ostean, **Luhartz** taldeagaz erromeria. Atsedendian, **piroteknia** eta **txokolata**.

>> **Apirilaren 29an**, **meza**. Mikel Deuna **dantza** taldearen emanaldia. Goizean zehar, **trikitilariak**. **Herri kirol** erakustaldia. Arratsaldean, probak. Ondoren, errifaren zozketa eta **Donien Atxa** kentzea.

OTXANDIO

(Udaberri Jaia)

>> **Apirilaren 21ean**, **Jolasen hasiera** 13:00etan. **Bazkari herrikoia**, 15:00etan. Gozo-Gozo taldearen **erromeria**, 19:00etan. **Bootsbans, G.R.T, Kruders** eta **Eskean**. Ondoren, **Gozo-gozo** taldeagaz erromeria.

MUSIKA

DURANGO

>> **Apirilaren 20an**, **II. Greatest Hits Gauaren** lehenengo emanaldia, 21:00etan, Plateruenean.

>> **Apirilaren 21ean**, Tronperri dantza taldearen 50. urteurrena ospatzeko ekitaldia: **Bogoroditsie** abesbatza, **Herri Maite** akordeoi taldea eta **Silboberri** txistu elkartearen emanaldia, 19:30ean, Andra Mariako elizpean.

>> **Apirilaren 26an**, Kantuzaleen **Kantulagun** txokoa: Josu Zabala eta Batbihurula, 20:00etan, Plateruenean.

>> **Apirilaren 27an**, **II. Greatest Hits Gaiaren** bigarren emanaldia, 21:00etan, Plateruenean.

ELORRIO

>> **Apirilaren 26an**, **Ateneo Jazz jam session**, 21:00etan, Ateneoan.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

La fría luz del día

Zuzendaria: *Mabrouk El Mechri*
barikua 20: 19:00
zapateria 21: 19:30
domeka 22: 18:30
astelehena 23: 19:00
martitzena 24: 18:00

El exótico hotel Marigold

Zuzendaria: *John Madden*
barikua 20: 22:00
zapateria 21: 22:30
domeka 22: 20:30
astelehena 23: 22:00
martitzena 24: 20:00

Umeen zinema

Ira de titanes 3D

Zuzendaria: *J. Liebesman*
zapateria 21: 17:00
domeka 22: 16:30

Zineforuma

¿Y ahora adonde vamos?

Zuzendaria: *Nadine Labaki*
eguna 26: 20:30

ELORRIO

Arriola

Intocable

Zuzendaria: *Eric Toledano*
zapateria 21: 22:30
domeka 22: 20:00
astelehena 23: 20:00

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

Los Idus de Marzo

Zuzendaria: *George Clooney*
domeka 22: 20:00
astelehena 23: 20:00

Umeen zinema

Una aventura extraordinaria

Zuzendaria: *Ken Kwapis*
domeka 22: 17:30

Zineforuma

Bi anai

Zuzendaria: *Imanol Rayo*
martitzena 24: 20:00

apirileko agenda

Apirilak 21 • Zaldai Mendi Taldea
08:00 Aldaparapen. Bera-Larrun (900m)-Sara. Erraza, 40 ordu oinez.

Apirilak 21,22,28,29 • Iurreta Txirindulari Elkarteak
09:00 Hainbat ibilbide (75-104km).

Apirilak 21,28,29 • Emakumeen Bira Ziklismo K.E.
21ean, Bizkaikoloreak III. Emakumeen Klasikoa (euskar torneo), Iurreta.
28an, Araxes saria (euskar torneo), Betelu.
29an, Tafallako udaletzeko saria (euskar torneo), Tafalla.

Apirilak 21 • Antzinako eztegia
Oromiñon.

Apirilak 22 • Belaualdien arteko martxa, Abadiñon
Durangaldeko Merinaldearen Amankomunazgoa. Irteera: Trinketeko plazan
10:00 Ibilbide luzea - 10,100 km (3 ordu).
11:00 Ibilbide ertaina - 8 km (2 ordu).
12:00 Ibilbide laburra - 2,500 km (ordu eta erdi).

Apirilak 24,25,27 • Herri biblioteka
24an, Haurren irakurle kluba. 17:00 (8-10 urte), 18:00 (11-12 urte).
18:30 Helduen irakurle txokoa: "Debo todo a tu olvido".
25ean, 19:00 Helduen irakurle txokoa (euskaraz): "Rock'n roll".
27an, Ipuin kontalaria: Rai Bueno. 17:30 (3-4 urte), 18:00 (5 urtetik gora).
20:00 Helduentzako ipuin kontalaria: Primigenius.

Apirilak 24,26 • Kultura Saila
18:30 Guraso eta hezitzaileentzako hitzaldiak, Ibarretxe kultur etxean.
Hizlaria: Juan Carlos Alonso (psikologoa)

Apirilak 24,25,28,29 • Oromiñoko San Marko jaiak
24an, Iluntzean Donien Atxa jasotzea eta ondoren parte-hartzaileentzat makailau errea emango da
25ean, Goizean goiz, kalejira. 11:30 Meza. Jarraian, herri bazkaria.
Arratsaldean, briska txapelketa. Bilartean igel txapelketa.
28an, Ume dantzak eta ume jolasak. Iluntzean tortilla txapelketa, parte hartu nahi duenak osagaiak eta tresnak ekarri beharko ditu.
Ondoren, erromeria Luhartz taldearekin. Piroteknia eta txokolata.
29an, 11:30 Meza. Mikel Deuna dantza taldea. Trikitilariak. Herri kirol ikustaldia.
Arratsaldean, probak. Ondoren, errifa zozketa eta Donien Atxa jaiak.

IURRETAKO UDALA



Apirilaren 21ean, 21:30ean, Otxandion

KRUDERS

Abadiñoko Kruders taldeko bost musikariek joko dute, Udaberri Jaia amaitzeko, Otxandion antolatuta duten kontzertuan. Mañariako maketa lehiaketa irabazi eta lau urtera *Morir viviendo* diskoa kaleratu dute, eta, batez ere, disko berriko kantak eskainiko dituzte kontzertuan, 21:30etatik aurrera.

DENBORAPASAK

ZORION AGURRAK

zorionak@anboto.org • Eguazteneko 17:00ak arteko epea

	Amerikako estatua	Hesteak libratzekoa	Sugetzarra
	Jatekoa	Diru-etxea	
	Noka, naiz		
	Mirakulu		
Onartzeko modukoa	Haga nagusia		
Elkarteak	*Irudiko hondartza		
Zintzarri handi			Oxigenoa
Ez emea			1
		Zangoaren atal	
		Oihal sendoak	
Eguratsa			500
Ekain			Gipuzkoako herria
		A birritan	
		Bizkaieraz, duk	
Hizki grekoa		Erne!	
Hegazti erregeak		Edo	Nasa
Uhartek			Bokala
Putrek			Sufrea
		Musika nota	



Atzo, apirilak 19an, **Amaiak** 5 urte bete zituen. Zorionak! Besarkada eta musu potolo bat lurretako familiaren partez!



Laida Zamalloak, atzo, apirilaren 19an, urte bi egin zituen. Zorionak eta musu handi-handi bat familiaren partez!



Zorionak **Irati** zure 4. urtebetetzeari! Zure aita, ama, aitita, amama, osaba, izeko eta familia osoaren partez!



Joseba Murgoiobeñaak, neskakiler horien erdian dagoen mutikoak, 44 urte bete ditu apirilaren 17an. Zorionak familiaren partez, bereziki bere alaba Aneren partez. Musu asko!



Ongi etorri bikote! Martxoaren 23an ezkondu eta egun batzuk Thailandia aldetik ibili ostean, berriro ere gure artean ditugu **Unai** eta **Izaskun**!



Zorionak, **Jabier**! Martitzenean bizarra ondo ebaki musuak jasotzeko. Bizi poz horrekin jarraitu! Familiaren partez.



Gaur, apirilak 20, **Amaiurrek** urteak betetzen ditu, eta 29an **Uxuek**. Zorionak eta musu bat etxeko danon partez!



Salvadore eta Labia artean biziko litzatekeen baserriar artista honi, **Martxel**, domekan 7 kandela amatatzen lagunduko dio bere arrebatxo Maianek!

6	5	8	1			4
	3		7	2		1
1	2		4			
	1			2	4	6
3			7	1		
8					7	9
4	7	2			1	5
5			6	2		
2	9	3				8

7	1		2			
2	9	4	5			
					5	
			7		4	
5	4			6	7	3
				1	7	
	3	2	8			9
1			4	6		



Asteburu honetan **Iñigo** eta izeko **Begok** urteak beteko dituzte. Zorionak eta musu handi bana etxekoan partez!



Zorionak **Ipar Arriagari** 15 eguneko behin zotz egin dugun tarta zuri egokitu zaizu. Txartela gura duzunean jaso dezakezu, lurretako Bixente Kapanaga 9an.

BOTIKAK

- Barikua, 20**
09:00-09:00
• Navarro (Artekale 6, Durango)
- Zapatua, 21**
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
- 09:00-22:00
• Larrañaga-Balentiaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)
- 09:00-13:30
• Navarro (Artekale, 6, Durango)
- Sagastizabal (Askatasun Etorb. 19 - Durango)
- SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
- Balenciaga (Ezkurdi plaza 8 - Durango)
- Unamunzaga (Muruetatorre 2C - Durango)
- Urizar (Gabiola 2 - Berriz)
- 09:00-14:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
- Domeka, 22**
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Etorb. 19 - Durango)
- Astelehena, 23**
09:00-09:00
• Gaztelumendi (J.A. Abasolo 2 - Durango)
- Martitzena, 24**
09:00-09:00
• Navarro (Artekale 6, Durango)
- 09:00-22:00
• Eguren, Isabel (Trañabarren 15 - Abadiño)
- Eguaztena, 25**
09:00-09:00
• Mugica (Andra Maria 9 - Durango)
- Eguena, 26**
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)

TELEFONO INTERESGARRIAK

- SOS Deiak**.....112
- DYA**94 620 28 00
- Gurutze Gorria**94 681 09 49
- Osakidetza**94 600 72 00
- Ertzaintza**94 466 93 00
- Suhiltzaileak**112
- GARRAIOAK**
- Euskotren902 54 32 10
- Bizkaibus94 448 40 80
- Pesa902 10 12 10
- Continental Auto945 286 466
- TAXIAK**
- Abadiño946 814 470
- Matiena606 459 988
- Durango Geltokia946 811 001
- Elorrio Geltokia946 820 040
- J.L. Uriarte670 402 002
- I. Estebez670 678 273
- M Galeano670 409 330
- Iurreta946 201 565
- Taxi auzunea688 618 690
- UDALAK**
- Abadiño94 621 55 30
- Abxondo94 682 10 09
- Berriz94 682 45 84
- Durango94 603 00 00
- Elorrio94 658 27 12
- Garai94 681 63 93
- Iurreta94 620 12 00
- Izurtza94 681 35 48
- Mallabia943 17 14 61
- Mañaria94 681 89 98
- Otxandio945 45 00 20
- Zaldibar94 682 70 16
- UDALTZAINGOIA**
- Abadiño94 621 55 33
- Berriz94 682 40 36
- Durango94 603 00 10
- Elorrio94 682 02 18
- Iurreta94 620 08 88
- EGURALDIA**
- 9 **13º** BARIKUA ☁
- 5 **13º** ZAPATUA ☁
- 7 **13º** DOMEKA ☁
- 11 **18º** ASTELEHENA ☁
- 6 **15º** MARTITZENA ☁

AZOKA-BASERRITIK PLAZARA



Abadiño (Traña-Matiena) - Eguaztenetan
10:00etatik aurrera
Durango - Zapatu goizetan
Zornotza - Domeka goizetan

ASTEKO SALNEURRIAK:

- Letxuga..... 0,80 euro
- Porruak..... 1,80 euro/tx
- Kalabaza..... 2,20 euro/kg
- Azenarioak..... 1,50 euro/tx
- Azelgak..... 2 euro/kg
- Bruselazak..... 3 euro/kg
- Espinakak..... 1,50 euro/tx
- Indabak..... 15 euro/kg
- Idiazabal gazta..... 16,50 e/kg
- Espeltzako ogia..... 3,60 euro

SOLUZIOAK

I	S	•	K	V	I	V	S
V	•	K	V	L	R	I	•
K	V	O	N	V	R	R	V
•	I	D	V	•	O	R	•
V	V	•	L	I	G	V	B
D	•	V	O	R	I	G	•
N	I	O	•	V	R	R	V
O	•	N	V	R	R	V	•
K	V	I	D	I	V	N	V
V	T	S	V	M	•	O	•
N	U	V	N	•			
V	I	K	V	J			
•	V	•	K	•			



“Bakarrik, surfak ez dauka zentzurik”

Kirol eta arlo askotan ibilitakoa da Txomin Magdalena; surfzalea ere bada, eta dioenez, ezinbestean lagunekin praktikatzeko kirola da

Txikitan hasi zen olatuak hartzen Txomin. Gero, Kurutzia Ikastolan futbola ezagutu zuen. Gaztetan bertsolari eta ipuin-kontalari bihurtu eta orain irakurle klubaren dinamizatzaile ere badabil. Irakaslea da ofizioz. Eguraldiak lagundu ez arren, aspaldiko surf-oholagaz agertu da elkarrizketara.

Ez zara surfzale hasiberria.

Txikitan Zarautzeko hondartzara joaten hasi ginen, uretan zein haretan jolastera. Hasieran *boogie*-agaz [*bodyboard*] ibiltzen nintzen, etzanda. Gero, zortzi-hamar urteagaz ohol bat utzi zidaten. Udan egiten nuen surfa, neguan hemen futboleant eta beste kontu batzuetan nabilelako. Futbola utzi nuen, hamazazpi urteagaz, urte osoko kontua bihurtu zen. Azkenean sei urteetan, elurra ala eguzkia, ahal den guztietan joaten naiz.

Aspaldiko taula ekarri duzu.

Miarritzen ekoizten den marka bateko taula da. Ez dakit zein urtetakoa den, baina 70eko hamarkadako delako esango nuke. Etxera heldu zen, baina ez dakit zelan, egia esan. Txikia nintzen orduan. Kariño itzela diot; lantzean behin sartzen naiz uretara beragaz.

Zutundu surfeskolakoko sortzaileetako ere bazara.

Durangaldean jende asko ibiltzen da skatean, snowboardean eta surfean. Horri bidea egin edo errazteko sortu genuen Zutundu. Zarautzeko surf-udalekuak egiten ditugu, baina Durangaldean sortua denez hemengo gazteei begira egiten dugu lan, batez ere. Irlandako gazteekin Aste Santuan egindako elkartrukea ere hemen kokatu dugu. Zapparok oso pozik etorri dira handik. Abuztuan datoz irlandarrak.

Zer ematen dizu surfak?

Galdera kuriosoa da, eta jendea oso mistiko ipintzen da halakoak erantzutean. Ez dakit, ni zoriontsu sentitzen naiz surfa egiten. Une horretan ez naiz beste ezertaz akordatzten. Aste bitan hondartzara joan

barik banago umore txarrez egoten naiz. Hasi ahal zara pentsatzen olatuak nondik datozen-eta, mistizismoan, baina horretara joan barik ere, uretan egon eta kirola egitea itzela da niretzat.

Surferako leku gogokoena?

Munduko lekurik onenean egon zaitezke, baina bakarrik bazaude ez dauka zentzurik.

Ipuinak kontatzeare gus-tuko duzu.

A pur bat anekdotikoa izan zen. Alaitz Murogaz [kontalaria da] DVD bat grabatu nuen, eta esan zidan ipuinak kontatzen ikusten ninduela. Egun baten animatu nintzen. Astiro-astiro hasi eta gustura sentitzen nintzen, umeekin hartu-emanen. Ni ere asko sartzen nintzen rolean eta ikusten nuen umeek ondo pasatzen zutela. Irakasle legez ordezkapenak egiten hasi nintzen saio kopurua jaitsi egin nuen, baina oraindik ere lantzean behin egiten dut. Umeak adi mantentzeak poz handia ematen du.

Irakurle klubak gidatzen dituzu, bestalde.

Horretan ere Alaitz Muroren bidez hasi nintzen, Iurretan, bere ordezkari. Laugarren urtea da hau, gazteekin. Iaz Ermutik deitu ninduten

helduekin euskaraz eta gaztelaraz egiteko, eta aurrean Eibarren ere banabil. Gustura hartzen dut, irakurtzeko aitzakia on bat daukat. Azkenean, hilean hiru-lau liburu irakurtzen ditut. Aberasgarria da liburuetatik berba egitea jendeagaz batera.

Zelakoa izan zen komertzial beharra?

Haur Hezkuntza aurretik Humanitate eta Enpresak ikasi nituen Eskoriatzan. Elkar argitaletxean ibili nintzen diskoak saltzen. Oso akordu polita daukat. Herrietatik ibili, liburu-dendetan nobedadeak saldu... Taula sartzen nuen autoan. Behin nagusiak deitu zidan: “Txomin, non zaude?”. “Ger-

nikatik irteten”, esan nion. Atzetik, “begira zelakoa olatua!” entzuten zen. Baina lana ondo egiten nuen, e! Pentsa, hobetu egin nituen salmentak! Bilbotik patineteagaz ibiltzen nintzen, gainean makutoa hartuta. Dendetakoek flipatu egiten zuten!

Txomin Magdalena •

29 urte dauka.
Irakasle da lanbidez.

Eskubideak erraustu orduko

“Zer atarako ete dau karretillan serriñaz batera?”, pentsatu zuen bere baitan zinez azkarra zirudien atezainak, behargin baldar zaharra hurreratzeko ikustean. Agurea zerrauts esku-orga bat tatarrez zeroala irteten zen lantegitik atera, eta atezainak ia aldioro geldiarazten zuten zerrauts artean zer edo zer ezkututzen zuelakoan: “Zetako biher dozu horrenbeste serrin?” eta agureak: “Zetako ixengo dok ba, eteko ornillue isiotzeko”. “Itzidazu orduen bertan eskue sartzen!”. “Sartik gurebok, eztoz hemen ezebe topauko-ta!”.

Lantegian erreminta dezente falta izaten zela tar-teko, eguneroko ogia bihurtu ziren ate inguruko talkak, baina agurea, behinik behin, ez zuen inoiz ezer lapurtzen harrapatu. Lanak osasuna higaturik erretiroa hartzeko garaia heldu zitzaionean, herritik paseoan atera zen batean, gutxi eman eta horrenbeste kendu zion fabrikaren atariarekin egin zuen tupust. Aldaba jo edo alde egin pentsatzen hasi, eta nor ikusiko eta atezain begiluzea agertu zen: “Aspaldiko! Serrin bille zatoz oin be ala?”, eta agureak orduan “ez, lasai, hemendik hartuteko karretillak saldute irabaziteko diruaz sukalde barri bat ipini naixuan”, eta aho zabala aho zabalik utzita egin zuen ospa.

Murrizketen aurrean gure eskubideen alde kalean lanean jarraitzea da irtenbide bakarra

Istoria hau Durangon jazo zen, irudimena irudipenari gailentzen zitzaion garaian. Orain, murrizketek eragindako egoera itogarrian, irudimena berreskuratu, eta martxoaren 29ko mugarririk aurrera eginez, dagozkigun eskubideen alde kalean lanean jarraitzea da daukagun arnasbide bakarra.

e t x e a
i a t
i a t
e t x e a

PLATERUENA

Astelehena **ASTELEHENGORRI** -%10
Asteartea **ARINARIN**
Asteazkena **AHOBETEMUNDU**
Osteguna **GEUREKONTU**
Ostirala **BARIKUNASAI**

Astelehenetik zapatura egunero aukeran:
Menu ekologikoa
Menu begetarianoa
Haurrentzat menu erdia
Eskatu MENU TXARTELA 10. menua OPARI